



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2001eko abenduaren 21a

128 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Justizia Administrazioa aurrekontu programari buruzko fiskalizazio txostena (2000. urteko ekitaldia), Kontuen Ganbarak egina ([2. or.](#)).
- Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina ([18. or.](#)).

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Justizia Administrazioa aurrekontu programari buruzko fiskalizazio txostena (2000. urteko ekitaldia), Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 1ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Justizia Administrazioa aurrekontu programari buruz –2000. urteko ekitaldia– egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2001eko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Justizia Administrazioa aurrekontu programari buruzko fiskalizazio txostena (2000. urteko ekitaldia), Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera: Justizia Administrazioak Nafarroako Foru Komunitateari eginiko transferentziak. Eskumenen egungo antolaketa (2. or.).
- II. Programaren deskribapena (7. or.).
- III. Helburuak, norainokoa eta mugak (8. or.).
- IV. Ondorioak eta gomendioak (8. or.).

Gehigarriak:

1. **gehigarria.** “Justizia Zuzendaritza Nagusiaren ebaluazioa. 2000ko helburuak” (13. or.).
2. **gehigarria.** Justiziako funtzionarioen jarduketara plana, 2000-2003 urteetarako (14. or.).

Eranskinak:

1. **eranskina.** Nafarroako Gobernuaren Justizia Zuzendaritza Nagusiaren organigrama (16. or.).
2. **eranskina.** Justiziaren antolamendua Nafarroan (17. or.).

I. SARRERA: JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAK NAFARROAKO FORU KOMUNITATEARI EGINIKO TRANSFERENTZIAK. ESKUMENEN EGUNGO ANTOLAKETA.

I.1. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ARLOKO ESKUMENAK ESKUALDATZEA.

Justizia Administrazioak Nafarroako Foru Komunitateari eginiko transferentziak 1999ko apirilaren 28ko Transferentzien Batzarreko Akordioan jasota daude; akordio horrek bi errege dekretu ekarri zituen: bata giza baliabideak eskualdatzeari buruzkoa –maiatzaren 14ko 812/1999 Errege Dekretua– eta bestea gauza baliabide eta diru baliabideei buruzkoa –maiatzaren 14ko 813/1999 Errege Dekretua-. Bi eskualdatze horiek 1999ko urriaren 1etik aurrera dute indarra.

Gero, abenduaren 30eko 2077/1999 Errege Dekretuaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zitzaizkion Estatuko Ibilgailuen Parkeko bitartekoetatik Nafarroako Justizia Administrazioari atxikita daudenak. Horrek 2000ko urtarilaren 1etik aurrera du indarra.

Errege dekretu horien edukiari begiratuta, eskualdatze horrek sortzen dituen ondorioak azpimarratu ditugu:

1.1.1. Justizia Administrazioaren zerbitzupeko giza baliabideak.

812/1999 Errege Dekretuak ondokoa dio:

a) Nafarroari eskualdatzen zaizkio bere lurraldean Estatuko Administrazioak ondokoei buruz betetzen dituen funtzio eta zerbitzuak:

- Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileak; haien artean, ofizialen, agenteen eta auzitegiko sendagileen kidego nazional-etako langileak daude. Horren mugak, erregelamendu organikoek ezarritakoak izanen dira. Beteriko lanpostuak eta lanpostu hutsak sartzen dira.

- Bake epaitegietako idazkarien multzoak berraztertu eta onestea; plantillak finkatzea eta

antzinako funtzionario nazionalak 7.000 biztanle baino gehiagoko epaitegiatar atxikitzea.

Laburbilduz, ondokoak dira transferentziek ukituriko funtzionarioen lanpostuak, aitzinako kidego nazionaletakoak:

Destinoa	Beteak	Behin-behinekoak	Hutsak	Lanpostuak, guztira
Aretoak eta epaitegiak	290	32	19	341
Bake epaitegiak	36	29	–	65
Guztira	326	61	19	406

b) Lankidetzeta jarduketa batzuk ezartzen dira, idazkari judizialak direla-eta bi administrazioek dauzkaten eskumenez behar bezala baliatzeko.

1.1.2. Gauza baliabideak. 813/1999 Errege Dekretua.

a) Nafarroari eskualdatzen zaizkio bere lurraldean Estatuko Administrazioak ondokoei buruz betetzen dituen funtzio eta zerbitzuak:

- Nafarroako justizia epaitegiek jarduteko behar diren gauza baliabideen plangintza, programazioa eta administrazio-kontrola.

- Nafarroan egoitza duten organo judizialek erabiliko dituzten higiezinak, altzariak eta gauzak erostea.

- Epaitegiataro eraikinak mantentzea.

- Justizia epaitegiataro abokatu eta prokuradore doakoan laguntza finantzatzea, haiei buruzko araubidearekin bat.

- Funtzionamendu gastuak eta zerbitzu arrazoiak direla-eta Justiziako langileei ordaindu beharreko kalte-ordainak, bai eta lekuko eta perituei ordaindu beharrekoak ere.

- Eskualdatzen diren zerbitzuei atxikitako langile eta lanpostu hutsak, Nafarroako lurralde gerentziako langileei –funtzionarioak– eta zerbitzu ezberdinei atxikitako lan kontratupeko langileei dagozkienak. Laburbilduz, langile horietan, alde batetik lurralde gerentziakoak daude eta bestetik mantentze zerbitzuei eta bestelako zerbitzuei –esate baterako, psikologoak, hezitzaileak, gizarite langileak eta garbitzaileak– atxikitakoak. Hona:

Destinoa	Funtzionarioak	Lan kontratupeko langile finkoak	Aldi baterako kontratupeko langileak	Kontratupeko langileen lanpostu hutsak	Guztira
Lurraldeko gerentzia	7	–	–	–	7
Gainerako zerbitzuak	–	31	13	9	53
Guztira	7	31	13	9	60

Lan kontratupeko langile finkoen artean, 13 langilek egunean 7,5 ordu baino lanaldi laburragoa dute.

- Transferitutako zerbitzuei atxikitako Estatua- ren ondasun, eskubide eta betebeharren inbentarioa, zenbait eraikin eta bulego ere hartzen dituztenak, jabetza edo errentamendua direla medio.

b) Estatuko Administrazioari dagokio organo judizialen eta lurralde nazional osoan eskumena duten ministerio fiskaleko organoen funtzionamendurako gauza baliabideak eta diru baliabideak jartzea. Halaber, hari dagokio erregistro zibiletara-

ko material normalizatua ematea eta akats judizialen eta Justizia Administrazioaren funtzionamendu okerraren ondorioz sortutako ondare-erantzukizunak bere gain hartzea.

c) Bi administrazioen funtzio konkurrente eta konpartitu gisa, ondokoak aipatzen dira berariaz:

- Nafarroak laguntza emanen du epaitegiak jartzeko.

- Nafarroako justizia zerbitzuetarako sistema informatikoak eta lurralde nazional osoan aplikatzen direnak homogeneizatzea.

1.1.3. Estatuaren ibilgailuen parkea, Nafarroako organo judizialei atxikitakoa.

2077/1999 Errege Dekretuaren bitartez:

2000ko urtarrilaren 1ean, Nafarroari eskualdatu zitzaizkion Nafarroako organo judizialei atxikitako Estatuko ibilgailuen parkeko giza- eta gauza-baliabideak.

Eskualdatze horrek, funtsean, lanaldi osoko lau gidarirengan –hiru funtzionarioak dira eta bat kontratupeko langilea– eta lau ibilgailutan du eragina.

Laburbilduz, aurreko dekretuei jarraituz, ondoko langileak transferitu zitzaizkion Nafarroari –eskumen maila ezberdinetan–:

Enplegatuak	Kopurua
Funtzionarioak	336
Behin-behineko funtzionarioak	61
Lan kontratupeko langile finkoak	32
Lan kontratupeko aldi baterako langileak	13
A. Betetako plazak, guztira	442
B. Hutsik dauden plazak, guztira	28
A+B, guztira	470

Maiatzaren 22ko 186/2000 Foru Dekretuaren bitartez, besteak beste Justizia arloko eskumenak eskualdatzean transferituriko lan kontratupeko langile finkoak Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen estatutuan sartzeko prozedura arautu zen. Borondatezko funtzionariarizazio-prozesu horretatik kanpo utzi ziren aldizkako langile finkoak eta lanaldi partzialeko langileak. Prozesuaren emaitza izan zen Justiziako lan kontratupeko 18 langile funtzionario bihurtu zirela.

1.2. NAFARROAKO JUSTIZIAREN ANTOLAMENDUA

Atal honetan, Nafarroako Justiziaren egungo taxukera eta Nafarroako Foru Komunitateari dagokion egitekoa deskribatzen saiatuko gara.

1.2.1. Justizia Zuzendaritza Nagusia.

Justizia Zuzendaritza Nagusia irailaren 13ko 344/1999 Foru Dekretuaz sortu zen, Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuari eskualdatu- turiko funtzioak edo eskualdatzeko daudenak kudeatzeko administrazio egitura egokia emateko, bai Justizia arloan, bai espetxeen arloan ere.

Aipatu foru dekretuko 82. artikulua betez, zuzendaritza honek ondoko funtzioak beteko ditu, funtsean, Justiziaren arloan:

- Justizia Administrazioa dela-eta onesten diren programak betetzea.

- Nafarroako Justizia arloko organoei behar diren baliabideak ematea independentziaz eta eraginkortasunez jarduteko.

Bere eginkizunak gauzatzeko, bi zerbitzu ditu: zerbitzu juridiko eta administratiboa eta zerbitzu teknikoa.

Horietako lehenaren langai nagusia, funtsean, zuzendaritza nagusiari laguntza juridiko eta administratiboa ematea da (arau-proposamenak pres-tatzea, kudeaketa administratiboa, oroit-idazkiak eta estatistikak egitea, erregistroa...); bigarrenaren eginkizunak batez ere higigarrien eta higiezin- en ekipamenduari eta justizia zerbitzuen kalitatea hobetzeari buruzkoak dira.

Txosteneko 1. eranskinean Justizia Zuzendaritza Nagusiaren organigrama ageri da.

2000. urtearen bukaeran, 52 funtzionario eta 14 aldi baterako langile ari ziren lanean zuzendaritza horretan. Langile horien artean, lurraldeko gerentziatik eta Justiziari laguntzeko gainerako zerbitzuetatik transferitutako guztiak zeuden, 813/1999 Errege Dekretuari jarraituz.

1.2.2. Nafarroako Justiziaren Organigrama

Txosteneko 2. eranskinean Nafarroako Justiziaren antolamendua islatzen da. Hura aztertuta, ondokoa azpimarratu behar dugu:

A) Nafarroako Auzitegi Nagusia da Nafarroako lurraldeko antolamendu judizialaren goreneko burua, Auzitegi Gorenak nazio lurralde osoan duen jurisdikzioa ezertan kendu gabe. Hiru salatan (zibileko eta zigor-arloko sala, Administrazioa- rekiko auzietako sala eta lan arloko sala) biltzen diren magistratuek osatuta dago. Haren gobernu organoa Gobernu Sala da.

Auzitegi Nagusia, langile gaietan –magistratuak– Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Justizia Ministerioaren menpe dago, hari buruzko arauetan jaso bezala.

Fiskaltza ere azken ministerio horri atxikita dago. Nafarroan, fiskaltza Auzitegi Nagusian eta Probintzia Auzitegian dago; Tuteran ere fiskaltza- ren ordezkari-tza bat dago.

B) Probintzia Auzitegia Foru Komunitateko hiri- buruan du egoitza; foru lurralde osora zabaltzen du bere jurisdikzioa eta, ordena zibil eta penalean, lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiek emani- ko epaien errekurtoetan eta lehen auzialdiko epaie- tako suposamendu penaletan esku hartzen du. Magistratuek osatuta dago.

C) Pertsona bakarreko epaitegiak. Auziak eza-gutzeaz eta haien instrukzioaz eta prozeduraz arduratzen da, haien bereizitasunari begiratuta. Epaitegi hauek magistratu-epaile batek –Iruñeko kasuan– edo epaile batek –gainerako udaletan– osatuta daude. Nafarroan, ondokoak aurki daitezke:

- Lehen auzialdiko 7 epaitegi, Iruñean.
- Instrukzioko 4 epaitegi, Iruñean (1).
- Lehen auzialdiko eta instrukzioko 8 epaitegi Nafarroako beste herri batzuetan –1 Agoitzen, 2 Lizarran, 2 Tafallan eta 3 Tuteran–.
- Zigor-arloko 3 epaitegi.
- Administrazioarekiko auzietarako 3 epaitegi.
- Lan-arloko 3 epaitegi.
- Adingabeen epaitegi bat.
- Espetxeratuen Zaintzako epaitegi bat.

D) Bake epaitegiak. Antolamendu judizialaren lehen maila da. Bake epaitegi bat dago Nafarroako udalerrri guzti-guztietan, salbu eta haietan lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegirik bada go –Iruña, Agoitz, Lizarra, Tafalla eta Tuteran–; Beraz, 267 udaletan dago bake-epaitegirik. Haien eskumenak dira, funtsean, faltengatiko prozesu zibil eta penal zenbaitetan laguntza judiziala ematea. Organo hauetan bake epaileak aritzen dira; udal bakoitzeko osoko bilkurak 4 urtetarako hautatu eta Auzitegi Nagusiak izendatzen ditu. Ez dira enplegatu publikoak eta ez dute inolako lansaririk jasotzen, bai, ordea, ordainsari bat.

Laburbilduz, aurreko organo jurisdikzionalak ondokoek zuzenduta daude:

Organoak	Kopurua
Justizia Auzitegi Nagusia	13 magistratu
Probintzia Auzitegia	9 magistratu
Pertsona bakarreko epaitegiak	22 magistratu-epaile eta epaile
Nafarroako fiskaltza	13 fiskal
Bake epaitegiak	267 bake-epaile

Hala eta guztiz ere, aurreko lanpostuak ez dira benetan beterik egoten beti.

E) Bulego judizialak. Bulego judizialtzat jotzen da epaitegi eta auzitegiei zerbitzua ematen dien unitate administratiboa. Unitate hori bi eratakoa izan daiteke: “idazkaritza”, epaitegi edo auzitegi bati soilik zerbitzu ematen dienean, eta “zerbitzu komuna” haietako bi edo gehiagori zerbitzua ematen dienean. Hala eta guztiz ere, praktikan idazkaritza izenekoak dira nagusitasun osoa dutenak, zerbitzu komunak eta areto eta epaitegien arteko laguntzakoak oso gutxi direlako.

Justiziaren zerbitzupeko kidego nazionalak langileek –hau da, idazkari judizialak, auzitegiko sendagileak, ofizialak, laguntzaileak eta agente judizialak– lagunduta daude. Halaber, berari atxikitako bestelako profesional batzuek ere balia daitezke –gizarte langileak eta psikologoak–. Bulego langileen burua idazkari judiziala da.

Transferentzien prozesuaren ondorioz, bulego judizial horietako langileek –idazkari judiziala salbu– Nafarroan dute lanpostua. 2000ko ekitaldian, ukituriko langileak 293 funtzionario eta aldi baterako 36 langile dira.

Ondoko taulan azaltzen dira, laburbildurik, bulego judizialeko langileen eginkizun nagusiak:

Langileak	Eginkizun nagusiak
Idazkari judiziala	Bulego Judizialeko langileen burua. Epaitegiko kontuen kudeaketa. Epeak betetzen diren begiratzea. Jarduketan fede ematea.
Ofizial judiziala	Prozesu eta espedienteak tramitatzea. Epaileari eta idazkariari laguntzea. Aktak baimentzea. Idazkaria ordeztzea.
Laguntzaile judiziala	Tramitazio prozesalean laguntzea. Dokumentuak erregistratzea. Lan exekutibo ez-ebaztekoak egitea. Ofiziala ordeztzea.
Agente judiziala	Aretoa zaindu eta zainaraztea. Bahiturak exekutatztea. Polizia judizial gisa jardutea. Zaintza lanak egitea.

F) Bake epaitegiko bulego judiziala. Nafarroako bake epaitegien egungo egituran, honakoak bereizten ahal ditugu:

- Bake epaitegiak, 7.000 biztanle baino gehiagoko populazioetan (Altsasu, Burlata, Atarrabia eta Barañain). Bulego hauetan Justiziako kidego nazionalak langileak aritzen dira lanean –batez ere ofizialak eta agente judizialak–.

(1) Hauetariko bat 2000ko abenduan sortua.

- Gainerako bake epaitegiak. Guztiak bake epaitegietako idazkaritzen 25 taldetako bat dira: haien zerbitzupuan aritzen dira kidego nazionale-tako langileak.

Bi kasu horietan bietan, 43 funtzionario eta 19 aldi baterako langile daude transferentzien prozesuak ukituta.

- Aurreko langileak gorabehera, udal bakoitzak pertsona "egoki" bat izendatuko du erregistro zibileko lanetarako. Pertsona hori udaleko idazkari bat, funtzionario bat edo beste edozein pertsona izan daiteke, Udalak izendatua eta Lehendakari-tza, Barne eta Justizia Departamentuak izenda-pen hori berretsita. Pertsona horrek ez du inongo lan loturarik izanen, baina kalte-ordain bat jasoko du bere zerbitzuengatik.

1.2.3. Justizia arloko eskumenen banaketa Foru Komunitatearen esparruan.

Justizia Administrazioak Nafarroari transferen-tziak egiteko dekretuetan marrazturiko eskemaren arabera –eskema hori, bestalde, bat dator gaine-rako erkidego batzuei transferentziak egiteko pro-zesuekin–, honela laburbil daiteke Justizia arloko eskumenen banaketa:

A) Nafarroako Gobernua:

- Zerbitzu judizialerako eraikinak, altzariak eta instalazioak erosi eta mantentzea.
- Funtzionamendu gastuak.

- Abokatu eta prokuradoreen –eta, kasua bada, perituen– laguntza juridiko doakoa izateko dirulaguntza.

- Bake epaitegietako funtzionamendu gastue-tarako dirulaguntza.

- Langileen arloan: Justizia zerbitzuei atxikita-ko langile berekien eta lan kontratupeko langile transferituen kudeaketa integrala. Kidego nazio-nalak kudeatzeko eskumen partziala, idazkari judizialak salbu.

B) Justizia Ministerioa edo/eta Botere Judizia-laren Kontseilu Nagusia.

- Nafarroako Justiziaren antolamendu oroko-rra.

- Magistratu, epaile, fiskal eta idazkari judizia-len kudeaketa integrala.

- Gainerako kidego nazionaletako lan baldintza orokorrak (ordutegiak, lehiaketak, osagarriak, lanaldia, lanpostu hutsak...).

C) Bi administrazioek elkarrekin banatuta dauzkaten eskumenak:

- Epaitegi berriak ezartzea.
- Justiziaren zerbitzuko sistema informatikoa.
- Bulego judizialaren funtzionamendua antola-tzea.

Langileen kudeaketari dagokionez, berriz, ondoko taulak xehetasun gehiagorekin islatzen du eskumenen banaketa.

Langileak	Administrazio eskuduna	Nafarroako Gobernuaren eskumenak
Magistratuak, epaileak, fiskalak eta bake epaileak	Justizia Ministerioa eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia	–
Idazkari judizialak	Justizia Ministerioa	Bulego judizialak egoki funtzionatzeko laguntza
Auzitegietako sendagileak	Justizia Ministerioa eta Nafarroako Gobernua	Nominaren ordainketa eta Jarduketa Planen kudeaketa
Ofizial judizialak		
Laguntzaile judizialak		
Agente judizialak		
Lan kontratupeko langile transferituak	Nafarroako Gobernua	Kudeaketa integrala
Justizia Zuzendaritza Nagusiko langileak	Nafarroako Gobernua	Kudeaketa integrala

II. PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

“Justizia Administrazioa” programa Justizia Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen du. Zuzendaritza hori Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari atxikita dago.

2000ko ekitaldian, lehenbiziko aldiz azaltzen da programa hau Nafarroako Aurrekontu Orokorretan. Aurrekontu horietan dagoen informazioaren arabera, ondokoak azpimarratu nahi ditugu:

II.1. ZUZENDU EDO ALDATU NAHI DEN EGOERA

Programaren bitartez, aurrekontu-euskarria eman nahi zaie Justiziaren jardueri, “zerbitzua hobetu eta gabezia material eta funtzionalak” gainditzeko.

Helburu hori lortzeko, programak bi proiektu ditu:

- 60000 proiektua. Justizia Zuzendaritza Nagusia.
- 60001 proiektua. Nafarroako jurisdikzio-organoen funtzionamendua.

Halere, programarekin batera doan informazioa ez da proiektuen arabera identifikatzen, salbu eta helburu eta ekintzen atalari eta aurrekontu-lerroei dagokienez.

II.2. PROGRAMAREN HELBURUAK ETA EKINTZA.

60000 proiektuari buruz esaten da Zuzendaritza Nagusiak funtzionatzeko behar diren gastuak biltzen dituela, bai eta Nafarroan espetxe berri bat eraikitzen laguntzeko kontusailak ere.

60001 proiektuan, berriz, Nafarroan egoitza duten organo eta zerbitzu judizialei behar diren baliabideez hornitzeko gastuak daude, hain zuzen ere independentziaz eta eraginkortasunez lan egin ahal izan dezan.

Programaren helburu gisa, ondokoak ezarri dira:

- Justizia Administrazioarako eta Espetxeetako Zuzendaritza Nagusirako onesten diren programak betetzea.
- Higiezinaren gaineko espedienteak bultzatzea, bai Justizia arlokoak, bai Espetxeetako Zuzendaritza Nagusikoak.
- Organo eta zerbitzu judizialei funtzionatzeko behar dituzten baliabideak ematea.

- Justiziaren kalitatea hobetzea, Zuzendaritza Nagusiaren eskumenen esparruan.

- Notarioak eta erregistratzaileak izendatzeko ahalmenak.

- Zuzendaritza Nagusiaren kudeaketa administratiboa.

- Arau proposamenak prestatzea, kasuan kasuko eskumenen esparruan.

- Gastuen eta dirusarreraren aurrekontu- eta kontabilitate-kudeaketa.

II.3. BALIABIDE BEREKIAK.

Ez du, jarduerak garatzearen ondorioz, dirusarrerara propiorik sortzearen berri ematen, baina bai hartzen da kontuan haiek egotea aurrekontuan, nahiz eta kopurua oso handia ez izan.

II.4. ADIERAZLEAK

Programaren testuarekin batera ez da inongo adierazlerik erantzen.

II.5. GIZA BALIABIDEAK

Aurrekontu informazioaren arabera, ondokoak dira giza baliabideak:

Langileak	Kopurua
Langile berekiak	18
Langile transferituak	433
Guztira	451

Transferitutako langileetatik, 393 funtzionario antolamendu judizialari atxikita daude.

II.6. AURREKONTUARI BURUZKO DATUAK.

Ondokoak dira hasiera batean 2000. urterako aurreikusitako kredituak:

Gastuak	Hasierakoak
Langileak	1.460
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	218
Transferentzia arruntak	75
Inbertsioak	329
Guztira	2.082

Dirusarrerak	Hasierakoak
Bestelako dirusarrerak	1
Guztira	1

Azkenik, gogorarazi behar da Foru Komunitateak Estatuko zama orokorretarako ematen duen diru-ekarpenetik, hitzarmen ekonomikoaren bitartez, Justiziaren zerbitzu publikoa emateagatik egin beharreko gastua kentzen duela.

III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK.

III.1. HELBURUAK

Nafarroako Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen arabera, 2001eko jarduketa planean sartu dugu "Justizia Administrazioa (2000)" aurrekontu-programaren fiskalizazioa.

Lan honekin, Kontuen Ganbarak ondoko helburuak lortu nahi ditu:

- Egiaztatzea 2000. urteko ekitaldirako programaren aurrekontu-betetzea, bere epigrafe ekonomiko guztietan, egotz dakizkiokeen gastu eta diru-sarrera guztiak jasotzen ote dituen, haien arrazoikotasunari buruzko iritzia eman ahal izateko.

- Programazioaren xede deneko jarduerari aplikatu behar zaion legezkoitasun printzipioa betetzen den egiaztatzea.

- Programaren erantzukizuna duten unitate administratiboek ezarritako barne kontrolako sistematik ebaluatzea; betiere, kasua bada, egoki jotzen diren gomendioak proposatuko dira, haiek hobetzeko.

- Programaren ekintza ezberdinetan lorturiko eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila aztertzea.

III.2. NORAINOKOA

Aurreko helburuak kontuan hartuta, lanaren arreta zuzendu da bai aplikatutako administrazio-prozeduretar, bai programaren 2000ko aurrekontura; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrollean beharrezkotzat jo ditugun zenbait alderdi ere aztertu eta ebaluatu dira lan horretan, eta baita programa betetzerakoan lortu diren eraginkortasun eta ekonomia mailak ere.

Metodologiari dagokionez, Kontuen Ganbarak aplikatu ohi dituen programak aplikatu dira; programa horiek ganberaren auditoretza gidetan agertzen dira eta Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako Sektore Publikoko Auditoretza Printzipio eta Arauen barrenean garatzen.

III.3. MUGAK.

Programaren exekuzioan eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiaren azterketak honako eraginak izan ditu:

- 2000ko ekitaldia da Nafarroako Foru Komunitateak Justizia Administrazioaren zerbitzuko baliabideen transferentziak urte osoan zehar erabiltzen dituen lehenbiziko aldia.

- Justizia arloko transferentzien prozesuaren ondoriozko eskumenen banaketak Administrazioari kudeaketa-ahalmenean ezartzen dizkion mugak berak.

- Justizia bezalako jarduera bat neurtu eta ebaluatzeko zailtasuna.

- Nafarroako sala eta epaitegiek egindako jarduerari buruzko informaziorik ez edukitzea.

Bestalde, Justizia Zuzendaritza Nagusiak barneko txosten bat egin du "Justizia Zuzendaritza Nagusiaren helburuen ebaluazioa (2000)" izenburupean –ikus 1. gehigarria–. Bertan, hark aurreikusitako helburuak eta haien betetzea aztertzen dira. Dokumentu hori Kontuen Ganbarak eginiko azterketa operatiboaren oinarria izan da.

Txostenak lau atal ditu, non helburuak eta lorturiko emaitza nagusiak islatzen diren. Atal horiek osatzeko, bi gehigarri eta bi eranskin daude, ondorio nagusiei buruzko informazio osagarriekin eta azalpenekin.

Azterketa-lana otsailetik apirilera bitartean egin du bi auditoretza-teknikaririk eta auditore batek osaturiko lan-talde batek. Talde horrek Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboaren laguntza izan du.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Justizia Zuzendaritza nagusiko langileei gure lana egiteko eman ditugun laguntzarengatik.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

Ondoren, egindako lanaren emaitzei buruzko gogoeta eta ondorio orokorrak azaltzen dira. Haiekin batera, behar diren gomendioak ere ematen dira.

IV.1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEARI JUSTIZIA ARLOKO ESKUMENAK ESKUALDATZEA ETA ZERBITZU PUBLIKO HORREN ANTOLAMENDU EREDUA.

Nafarroako Foru Komunitateari justizia arloko zerbitzuak eskualdatzeko dekretuek, beste autonomia erkidego batzuekin erabilitako eredu berari

jarraituz, eskumenen ondoko banaketa ezartzen dute, laburbilduz:

Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion eskumenak:

- Nafarroan Justizia Administrazioan egin beharreko funtzionamendu eta inbertsio gastuak.

- Justizia Administrazioako langileak eta lan kontratupeko langile transferituak kudeatzeko eskumen osoak (2).

- Transferentziek eragindako kidego nazionalak –idazkari judizialak alde batera utzita– kudeatzeko eskumenak Estatuak eta Nafarroak batera izanzen dituzte. Eskumen horiek ondokoei buruzkoak dira, funtsean:

a) Nominak ordaintzea.

b) Behin-behineko langileek lanpostuak aldi baterako betetzearen kudeaketa.

c) Justizia Ministerioaren lekualdatze lehiaketetan eta enplegu eskaintza publikoan atera beharreko lanpostuei buruzko beharrak jakitera ematea.

d) Lan baldintzen hobetzea, jarduketa planen kudeaketaren bitartez –ikus 2. gehigarria–.

Administrazio Zentralari eta, kasua bada, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari dagozkien eskumenak:

- Justiziaren antolaketa orokorra Nafarroan.

- Prozedura judizialak.

- Langileen kudeaketa integrala: magistratuak, epaileak, fiskalak eta idazkari judizialak.

- Nafarroari eginiko transferentziek ukituriko kidego nazionalak lanpostuak, eskaintza publikoa, lekualdaketak eta lan baldintza orokorrak.

Eskumenen banaketa honek, beraz, antolamendu eredu bat dakar berekin; antolamendu horretan, ordea, Foru Administrazioaren kudeaketa-ahalmena oso mugatuta dago. Hau da, Foru Komunitateak Justizia ia erabat finantzatu du bere lurraldean, baina horren aldera ez du inolako erabakimenik zerbitzu publiko horren kalitatea hobetzea bideratuko duten kudeaketa tresnak ezartzeko. Halaber, azpimarratu beharrekoa da idazkari judizialaren gainean –hain zuzen ere, bulego judizialeko langileen burua da, hori izaki Justizia Administrazioa egituratzen duen adminis-

trazio unitatea– Foru Komunitateak ez duela inolako kudeaketa-eskumenik.

Horri guztiari gehitu behar zaio Nafarroako Gobernuaren gastuetan zuzeneko eragina dutela zenbait erabaki ekonomikorik –esate baterako lege berriak edo Administrazio Zentralak negoziaturiko lansari-igoerak aplikatzeak berekin dakartzan beharrez materialak–.

Egoera horri dagokionez, azpimarratu behar da duela gutxi –2001eko maiatzean–, Justizia arloko konferentzia sektorialean –Administrazio zentralak eta autonomia erkidegoetakoek osatuta dago–, erabaki da erkidegoen “langileria eta antolamendu arloko” eskumenak zabaltzea. Halaber, bide horretan dago Justiziaren alde orain gutxi sinaturiko ituna.

Azkenik, azpimarratu behar dugu 2000. urteko ekitaldirako Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak sinaturiko hitzarmen ekonomikoaren behin-behineko likidazioan, 1.800 milioi kendu direla Foru Komunitateak egiten duen ekarpenetik, hain zuzen ere Justizia Administrazioaren arloko eskumenen gastuak ordaintzeagatik.

IV.2. PROGRAMAREN XEDEA

“Justizia Administrazioa” izenburupeko programa, azterketa honen xede dena, Justiziaren jardueretarako aurrekontu-euskarria da, eta helburu du “Justiziaren zerbitzu publikoa hobetzea, Nafarroako herritarraren onerako”. Horretarako, egun daukan gabezia material eta funtzionalak gainditi nahi ditu.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak Justizia Zuzendaritza Nagusia sortu zuen, Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuaren barruan: administrazio unitate hori da aurrekontu-programaren erantzulea, eta organo eta zerbitzu judizialen funtzionamendu egokirako behar den finantzazioa jarri eta kudeatzeko ardura du.

IV.3. PROGRAMAREN AURKEZPENA ETA EGITURA.

2000. urteko ekitaldia Justizia Administrazioa Nafarroako Gobernuaren eskumena den lehenbiziko urte osoa dela eta “programa” modalitatearen pean halako jardura baten aurrekontuak egitearen zailtasuna kontuan hartuta ere, aurrekontu-programaren aurkezpena eta egitura ez daude

(2) Berriki, Nafarroako Gobernuak Estatu Justizia Administrazioaren Enplegu Eskaintza Publikoaren kontrako errekurtsio bat aurkeztu du Nafarroako lanpostuak eskaintzen zituelako.

behar bezainbeste osaturik, gure ustez. Hona arrazoiak:

- Helburuek garatu beharreko jarduera egoki islatzen badute ere, oso modu orokorrean definitzen dute hura; bestalde, ez daude kuantifikaturik, ez eta aurrekontu-kredituekin loturik ere.

- Ez da espresuki helburuekin lotzen den adierazle kuantifikaturik eranstean.

- Ez da exekuzioari eta helburuen betetzeari buruzko jarraipen berariazkoa egiten; dena den, "Justizia Zuzendaritza Nagusiaren helburuen ebaluazioa (2000-2003)" dokumentuan, 2000. urteko haien betetze-mailari buruzko jarraipen kualitatibo bat jaso da.

Gomendioak:

- *Ganbera honek esaten jardun duenari jarraituz, Nafarroako Gobernuak programen arabera aurrekontu-egitura eta -praktikak duen erabilgarri -*

tasuna –bai kudeatzailearentzat, bai Parlamentua –rentzat– aztertu behar ditu, horrek behar bezalako programazio ekonomiko baterako baldintzak betetzen ote dituen egiaztatzeko. Nafarroako Gobernuan 2001ean ezartzekoa den aurrekontu-kudea –ketako eredu berria hartzea gogoeta hori egiteko modu aproposa izan daiteke.

- *Justizia Zuzendaritza Nagusiak ahalegin osagarri bat egin behar du programa behar diren tresnez hornitzeko, horien bidez programaren helburuak zenbatetsi, horien betetze-maila egiaztatu eta alderatu eta haren exekuzioan gerta daitezkeen desbiderapenak aztertu ahal izateko.*

IV.4. 2000ko PROGRAMAREN AURREKONTU BETETZEA

2000rako programaren aurrekontuaren likidazioak honako zenbateko hauek (milioitan) agertzen ditu, kapitulu ekonomikok:

Gastuak	Hasierako kreditua	Kreditu Bateratua	Onetsia	Bater/onets., %
Langileak	1.460	1.520	1.381	91
Ondasun arruntak	218	230	189	82
Transf. arruntak	75	126	125	99
Inbertsioak	329	258	89	35
Guztira	2.082	2.134	1.784	84

Dirusarrerak	Hasierako kreditua	Kreditu Bateratua	Onetsia	Bater/onets., %
Bestelako dirusarrerak	1	1	0,088	9
Guztira	1	1	0,088	9

Gastuei dagokienez, hona azpimarratu beharrekoa:

- Betetze orokorraren maila ehuneko 84koa bada ere, inbertsioen kapituluaren betetze maila eskasa dago –ehuneko 34–, funtsean eraikin judizialetan eta espetxe berrian egin beharreko obrak ez direlako egin.

- Aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko, gastua honela banatzen da:

Langileak	77
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	11
Transferentziak	7
Inbertsioak	5

- 2000ko aurrekontuko gastu-multzo aipagarrienak, langile-gastuak alde batera utzita, ondo-koak izan dira (pezetak, milioitan):

Gastuetako kontusailak	Kopurua
Abokatu eta Prokuradoreen Elkargoarentzako dirulaguntza (doako laguntza juridikoa).	94
Komunikazioak	51
Bake epaitegiatarako dirulaguntzak	31
Altzariak eta ekipamendua	22
Bulegoko materiala eta informatikakoa	21
Informazioa prozesatzeko ekipoak	21
Energia elektrikoa, ura eta gasa	17

Finantza-berrikuspeneko lanaren **ondorio gisa**, esan behar da 2000ko aurrekontu-likidazioak modu egokian agertzen duela eginiko jarduera. Dena den, 20 milioi pezetako langile-gastu batzuk –aparteko orduak eta zaintzako orduak– aurkitu ditugu beste programa batzuei egozten zaizkionak; programari, berriz, 22 milioi pezetako gastua egozten zaio, Nafarroako Gobernu osoaren posta frankadoreari dagozkionak.

Bestalde, argitu eta zehaztu behar da zehatz-mehatz Nafarroako Gobernuari dagokion jarduera jurisdikzionaletik ondorioztatzen diren dirusarreraren izaera; izan ere, Justizia arloko transferentziak arautzen dituzten dekretuek ez dute berariaz adierazten dirusarreretatik zein zati dagokion administrazio bakoitzari. 2000ko ekitaldia ixteko garaian, dirusarrera likidatuak 87.939 pezeta egiten zuten, itzulketetatik datozenak.

Horri dagokionez, adierazi behar da 2001eko ekitaldian Justizia Zuzendaritza Nagusia txosten bat prestatzen ari dela legezko aukerei eta harra-pa daitezkeen dirusarreraren izaerari buruz.

Gomendioak:

- *Kontabilitatearen eta aurrekontuen arlokoak diren eta kudeaketa publikoari aplikatzekoak diren printzipio eta irizpideak ahalik zorrotasun handie-naz aplikatzea.*

- *Administrazio zentralaren eta autonomia erki-degoen arteko negoziazio prozesuaren barruan, administrazio bakoitzari dagokion jarduera jurisdikzionaletik datozen dirusarreraren izaera zehaztu behar da.*

- *Behin dirusarrerak definiturik, haiek kobratze-ko kudeaketa egokia bermatuko duen prozedura diseinatzea.*

IV.5. LEGEZKOTASUNA.

Programaren aurrekontuaren betetzea, oro har, legezotasun printzipioaren arabera da.

Dena den, gomendagarria da behar diren neurriak hartzea doako laguntza juridikoa finantzatzeko dirulaguntzak zuzen justifikatzeko.

Bide horretan, 2001ean, prozedura berri bat jarri da abian, hain zuzen ere dirulaguntza horiek egoki kontrolatzen direla bermatzeko.

IV.6. ANTOLAKETA ETA BARNE KONTROLA

Eginiko lanean oinarrituz, honako iruzkin eta gomendioak azpimarratu nahi ditugu:

IV.6.1. Langileak

Nafarroako Gobernuaren gainerako zerbitzu zentralizatuak bezala, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak kudeatzen ditu nominak, salbu haien kontzeptu aldagarriak, Justizia Zuzendaritza Nagusitik zuzenean sartzen direnak. Kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketa Ekonomia Departamentuan egiten da.

Ganbera honek behin eta berriz azpimarratu ditu Nafarroako Gobernuaren nominaren jarraipene-ko eta kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketa-ko egungo eremuan antzematen dituen gabeziak; hori dela eta, ukituriko zerbitzuentzat, alderdi hori betebehar formal hutsa bihurtu da eta ez du plan-gintza- eta kudeaketa-tresna gisa balio.

Aurreko horretaz gainera, hona beste gomendio batzuk:

- *Langile gastuengatiko kontzeptu ezberdinak modu egokian jasotzea aurrekontuetan, programaren aurrekontuak ahal den modu fidagarriene-an erantzun diezaien kudeaketa beharrei.*

- *Langileei buruzko espedienteak osatzea, nominaren kudeaketa egiteko behar diren dokumentu administratibo guztiak jaso ditzaten.*

- *Aldizka, sortutako zenbatekoei buruzko berri-kuspenak eta adospenak egitea, batez ere nominaren kontzeptu aldakorrei dagokienez.*

- *Zerrenda propio bat egitea, aldi baterako kontratazioak errazteko. 2001eko ekitaldian horretan hasi da.*

Jarduketa Plana –ikus 2. eranskina– Foru Administrazioak Justiziaren zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzeko eta herritarrak hari buruz daukan ikuspegia hobetzeko tresna da; horren ordaina, zenbait baldintza betetzearekin lotuta dagoen destinoko osagarri bat da, transferentzien prozesuak ukituriko funtzionarioentzat. Plan honen kostuak 120 milioi egin du 2000ko ekitaldian. Ekitaldi horretan ez da helburuen betetze-mailari buruzko inolako ebaluaziorik egin.

Gure gomendioa da hiru hilez behin ukituriko funtzionarioek hartutako konpromisoen betetze-mailari buruzko txostenak egitea, Jarduketa Plaren testuan bertan aurreikusi bezala.

IV.6.2. Beste arlo batzuk

- *Aztertzea ez ote den komeni urteko eta urteanitzeko hautapen-prozedura irekiak erabiltzea behin eta berriz gastu txikien bidetik edo halakotzat hartuta eskuratu ohi diren gauza eta hornidura arruntetarako.*

- *Organo eta zerbitzu judizialean sortzen diren gastuen gaineko kontrol eta jarraipen egokiak bermatzeko prozedura hobetzea.*

- *Komunikazio gastuak, bereziki telefonoarena, aldizka berrikustea. Horretarako, ezinbestekoa da Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak informazio zehatza ematea.*

- *Justizia Zuzendaritza Nagusiak langile jakin batzuei PFEZaren errendimenduei buruzko urteko aitorpenean emaniko kalte-ordainak sartu behar ditu.*

- *Lekukoei ordaindu beharreko kalte-ordainak gaurkotzea, indarra duena 1900ekoa baita.*

IV.7. ERAGINKORTASUNA, EFIZIENTZIA ETA EKONOMIA

Helburuei eta adierazleei buruzko iruzkinak direla-eta –ikus 3. ondorioa–, ezin dugu iritzirik eman programaren betetzean lorturiko eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila orokorrari buruz.

Bestalde, eskumenen eskuratzea orain dela oso gutxikoa denez, transferentzien prozesu honekin definitzen diren antolamenduaren arloko eta kudeaketa-erantzukizunen arloko eraketak berak eta Justiziaren zerbitzu publiko izaerak ere are zailago egiten dute Justizia zerbitzuan esku hartzen duten estamentuek eginiko jarduera eta lorturiko eraginkortasun eta ekonomia mailak neurtzeko helburu eta adierazleak sartzea.

Hala eta guztiz ere, “Justizia Zuzendaritza Nagusiaren helburuak (2000-2003)” dokumentuan adierazitako helburuen betetzeari buruzko jarraipen bat egin dugu. Hari buruzko xehetasunak 1. eranskinean aurki daitezke. Jarraipen horretatik, ondoko alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Alderdi normatiboak. Arau propio bat eman da doako laguntza juridikoa finantzatzeko eta bake epaitegiak ere finantzatzeko. Halaber, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutua sortu da.

- Higiezinak. Alderdi azpimarragarrienak dira Agoitz eta Lizarrako epaitegien eraikinetan dauden egitura-arazoei konponbidea ematen hasi dela eta Justizia Auzitegiko beheko solairua egokitzeko eta hartan segurtasun sistemak ezartzeko obrak hasi direla. Egiteko geratu diren gauzen artean, Justizia Jauregiko plazaren urbanizazio lanak eta espetxe berria eraikitzeak aipatu behar ditugu.

- Antolamendua. Ondokoak azpimarratu behar ditugu bereziki: Iruñeko 4. Instrukzioko Epaitegia

abian jarri da; transferentziek ukituriko funtzionarioentzako jarduketa plana egin da; ofimatikako material zaharra ordeztu da; transferituriko mantentze kontratuak identifikatu dira; lege berriak aplikatetik ondorioztatzen diren beharrak; antolamendu orokorrari eta Justizia jauregi berria berritzeko obrei buruzko azterketa; Informatikako ekipo eta programen beharrak; bulegoko materiala normalizatu eta zentralizatzea; Nafarroako Gobernuak telefono sarean integratzea.

Egiteko geratu diren gauza garrantzitsuenen artean, azpimarratu behar dugu bi modu edo kultura administratibo ezberdin eraginkortasunez uztartu beharko direla; horrek, berez, bi aldeek emendiozko ahalegin garrantzitsuak egitea eskatuko du.

Bukatzeko, **amaierako laburpen gisa**, Ganbera honek ondokoa adierazten du:

- Justizia arloko transferentzien prozesuak eskumenen banaketa jakin bat ekarri du; banaketa horretan, Foru Komunitateko Administrazioak funtzionamendu gastuen eta inbertsioen finantzaketa hartzen du bere gain, baina zerbitzu publikoaren langileen eta antolamendu orokorraren arloan kudeaketa ahalmen mugatua dauka. Banaketa horrek, halaber, ezinbestez eskatzen du bi administrazioen artean etengabeko negoziazio prozesuan aritzea.

- Eskumen horiek gauzatzeko, Justizia Zuzendaritza Nagusia sortu eta Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari atxiki zitzaion. Unitate hori da “Justizia Administrazioa” programaren erantzulea; hain zuzen ere, lehen aldiz aurreikusi da 2000ko ekitaldirako Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Orokorretan.

- Aurrekontuaren aurkezpen formalak akats batzuk dauzka, besteak beste helburuei, adierazle kuantifikatuei eta haien jarraipenari dagokienez. Horrek, kudeaketa ahalmen mugatuarekin batera, ez du biderik ematen kudeaketan lorturiko eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila egiaztatzeko. Bestalde, ez da 2000ko ekitaldirako eskumenen eskualdaketak ukituriko funtzionarioen jarduketa planean aurreikusitako helburuen betetze maila ebaluatu.

- Egindako finantza berrikuspenetik ondoriozta daiteke, oro har, programaren aurrekontuak ekitaldiko jarduera islatzen duela; halere, zenbait arazo antzeman dira gastu-kontusail zenbaiten aurrekontu-egozketan.

- Halaber, argitu eta zehaztu behar dira administrazio bakoitzari dagokion jarduera jurisdikzio-naletik ondorioztatzen diren dirusarrerak.

- Justiziaren zerbitzu publiko izaerak berak, bi kultura administratibo ezberdin uztatzeko beharrek batera, emendiozko ahaleginak egitea eskatuko die bi aldeei, baina, gainera, asimilazio eraginkorra lortu arte epe bat iragan beharko da.

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da aholku-txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko irailaren 21ean.

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

1. GEHIGARRIA. “JUSTIZIA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EBALUAZIOA. 2000KO HELBURUAK”.

Dokumentu honek honako atal nagusiak ditu:

1. Helburu orokorrak.
2. Proiektuak eta gaurkotzeak.
3. Autoebaluazioa.

Gehigarri honetan, funtsean, lehenbiziko bi atalak laburbilduko ditugu, azterlan operatiboan lorturiko ondorioak hobeki ulertzeko.

I. HELBURU OROKORRAK.

2000ko ekitaldirako, Justizia Zuzendaritza Nagusiak ondoko helburuak ezarri ditu:

- a. Nafarroako Justizia Administrazioaren egoera errealia ezagutzea.
- b. Nafarroako Gobernuaren jarduketa eremuari buruzko balizko nahasbideak arindu eta, kasu bada, deuseztatzea, hain zuzen ere Justizia Administrazioaren zerbitzuko giza eta gauza baliabideei eta haien antolamenduari dagozkionak.
- c. Inbertsio beharren plangintza eta antolamendua.
- d. Antolamendua hobetzeko bideak bilatzea.
- e. Iruñetik kanpoko egoitza judizialei laguntza ematea.
- f. Doako osasun laguntza ematen duten langileei laguntzea.
- g. Ahal den neurrian, arau propioak egitea.

2. PROIEKTU ETA JARDUKETAK

Aurreko helburuak ondoko hiru jarduketa lerroen bitartez garatuko dira.

2.1. Gai normatiboak.

- Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutua sortu eta arautzea.
- Doako laguntza juridikoari buruzko foru arauak.
- Bake epaitegiatarako dirulaguntzei buruzko foru arauak.
- Ofizial, laguntzaile eta agente judizial lanpostuak aldi baterako betetzeko langileen zerrenda berriak egiteko sistema bat aztertzea, berdintasun, merezimendu eta gaitasun irizpideei jarraituz.

2.2. Higieziinei buruzkoak.

- Justizia Zuzendaritza Nagusian arkitektura-oztopoak eta osasun arazoak deuseztatzea. Hala ere, Lizarrako eraikin judizialean arkitektura oztopoak deuseztatzea.
- Agoitzen beste eraikin judizial bat egiteko orube bati buruzko kudeaketak egin eta gero kasuan kasuko proiektua kontratatu eta exekutatzea.
- Justiziako zerbitzu osagarrietarako lokal berri bat egiteko proiektua eta obrak kontratatu eta egitea.
- Nafarroako Justizia Jauregiko obrak: beheko solairua, sarbideetako segurtasuna eta urbanizazio-lanak.
- Espetxe berria: lurak aztertu eta Barne Ministerioarekin hura finantzatu eta kudeatzeko lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea.

2.3. Antolamendu gaiak:

- Justizia Jauregiari buruzko azterlan funtzional eta antolamenduzkoa.
- Mantentze kontratuak bideratzea.
- Ahozko eta idatzizko itzulpenak antolatu eta, kasu bada, kontratatzea.
- Kanpoko zerbitzuak kontratatzea zinpekoei laguntza eman eta haiek antolatzen.
- Eraikinak langile propioekin edo/eta kanpoko langileekin garbitzeko zerbitzuak antolatu eta kontratatzea.
- Altzariak eta bulegoko materialak eskuratze-ko prozedura.
- Idazpaper inprimatu normalizatuaren hornidura zentralizatua.
- Artxibategi judizialetarako eta liburutegirako sistema arrazional eta zentralizatu bar ezartzea.

- 2000. urterako jarduketa plana ezartzea eta NAPIrekin justizia arloko langileak artikulatzea.

- Botere Judizialaren Kontseiluarekin hitzarmen bat sinatzea, magistratuak prestatzeko.

- Langileen plantillak balioestea, baldin eta datu nahiko lortzen bada, eta berrantolamendu proposamenak.

- 4. Instrukzioko Epaitegia abian jartzeko beharizanei eta jarduketa-programazioari buruzko ebaluazioa.

- Judiziamendu Zibilari eta Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko lege berriekin loturiko beharren eta jarduketa-programazioaren ebaluazioa.

- Posta jaso eta banatzeko sistema aztertzea.

- Organo judizialen telefonoak Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboan sartzea.

- Epaile, idazkari eta auzitegietako sendagileei telefono mugikorrek erostea, guardietarako.

- Ofimatika material balio gabeari buruzko inbentarioa eta ordezte progresiboa.

- Organo judizial guztien hariteria eta konektatzeko ahalmena aztertzea.

- Inbentarioaren azterketa xehea eta oinarritzko hardware eta softwarea ordezten hastea. LIBRA programaren funtzionaltasunari buruzko azterketa.

2. GEHIGARRIA. JUSTIZIAKO FUNTZIONARIOEN JARDUKETA PLANA, 2000-2003 URTEETARAKO.

Autonomia erkidegoei eskumenak aldatzeak ukituriko kidego nazionalen langileek, arau indardunei jarraituz –funtsean, abenduaren 29ko 1616/1989 Errege Dekretua eta apirilaren 23ko 668/1999 Errege Dekretua–, gehienez ere 16 puntu jaso ahal izanen dituzte destinoko osagarri gisa –puntu bakoitza hilabeteko 3.482 pezeta dira–, jarduketa planetan aurreikusitako helburuak betetzeagatik.

Plan horien ezarpena ondoko baldintzen arabera da:

- Haien helburuak Justizia gaurkotu eta hobetzea izan behar du, zerbitzu publikoa den aldetik, alegia, hobekuntza hori herritarrentzat nabarmena izan dadila.

- Nafarroako Gobernuak onetsi beharko ditu; haien helburua Justiziaren zerbitzu publikoaren modernizazioa eta hobekuntza lortzea izanen da.

- Aukerakoak dira, urtean urtekoak, eta ezartzen badira, ordezkari gehien dituzten sindikatuekin eta, halakorik bada, lanbide elkargoekin negoziatu ondoren eta Botere Judizialeko Kontseilu Orokorra entzun ondoren ezarriko dira.

- Zehaztu egin behar dira ukituriko organoak, ukituriko funtzionarioak, lortu nahi diren helburuak eta bakoitzak hartu beharreko diru zenbatekoak.

- Helburuen betetzeari buruzko ebaluazioa hilabetean behin, hiru hilez behin edo sei hilez behin egingen da.

- Helburu horiek lortzeko osagarri bat ezartzen ahalko da hilerok. Baldintzak betetzen ez badira, ez da berriro kobratuko.

- Horretaz gainera, Nafarroako Gobernuari dagozkio:

- Jarduketa plana soilik transferentziek ukituriko langileentzat –hau da, kidego nazionalentzat– ezarriko da.

- Helburuak eta jaso beharreko diru kopuruak zehaztea.

- Betetzeari buruzko ebaluazioa.

2000ko urtarrilean, 2003 eta 2003 bitarteko aldirako jarduketa plana sinatu zen.

Apirilaren 17ko 156/2000 Foru Dekretuaz, 2000. urterako jarduketa plana ezarri zen. Hona-koak aipatzen dira bertan:

- Zabalpena: Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren eta Ministerio Fiskalaren peko ofizialak, laguntzaileak eta agente judizialak.

- Ordainsarien gehigarria: 2000n destinoko osagarria ondoko puntuen arabera gehituko da ⁽³⁾:

- Ofizialak, 6 puntu.

- Laguntzaileak, 6 puntu

- Agenteak, 6 puntu

2001 eta 2003 bitarteko ekitaldietarako, gehigarri hori urteko 7,5 puntukoa izanen da.

- Egozketa: Aurreko puntuak ondokoaren arabera egotziko dira.

A. Lanaldia: ehuneko 30. Herritarrari ematen zaion arreta hobetu eta zerbitzuen arteko harre-

(3) Puntu baten balio ekonomikoa: 3.842 PTA/hilean.

man modu eraginkorrago batez koordinatzeko, komenigarri jotzen da lan ordutegia zabaltzea. Zabalpen horren ondorioz, 6 ordu egon behar da lanpostuan, 8:00etatik 15:00etara.

Halaber, eraikin judizialetan sarbide, lanaldi eta zirkulazioari buruzko kontrol sistema bat ezarriko da funtzionarioentzat.

B. Lanera ez joatea gutxitzea: ehuneko 30. Egiatzaturiko arrazoiengatikoa ez den lanera ez joatea gutxitzeko, sendagileak emaniko bajak aurkezteko prozedura bat ezartzen da; azken batean, Foru Administrazioaren gainerako lekuetan erabiltzen dena da.


C. Elkarrekiko laguntza, informatizazioan eta prestakuntzan inplikatzeko: ehuneko 40. Alde bate-tik, bulego judizial ezberdinen artean giza baliabi-deen koordinazioa hobetu nahi da; bestetik, siste-

ma informatiko berriak eta etengabeko prestakun-tza ezar daitezten sustatzea.

- Ebaluazioa. Betetzeari buruzko ebaluazioa hiru hilez behin egingen da, halako moduan non aurreko atalen batean parte hartu ez dutenek ez duten hirugarren hiru hilekoan atal horri dagokion zatia jasoko. Bi atalen ez betetzeak, eta noski, hiruak ez betetzeak berekin ekarriko du hurrengo hiru hileko gehigarria guztiz deuseztatzea.

- Justizia arloko funtzionarioek jasotzen zuten "Ekintza sozialak" –ikasketak, oporrak...– atalaren orde-z, beste kontzeptu batzuk jasoko dituzte: Foru Komunitateko Administrazioaren heriotza edo baliaezintasun eta istripu aseguru orokorretan sartzea eta seme-alabengatik eta lanik gabeko ezkontidearengatik Nafarroako Gobernuan famili laguntza ematen den modu berean ematea.


1. ERANSKINA. NAFARROAKO GOBERNUAREN JUSTIZIA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ORGANIGRAMA.



Mailak	Langileak	
	Funtzionarioak	Behin-behinekoak
A	9	2
B	5	1
C	6 ⁽¹⁾	0
D	7	4
E	26	7
Guztira	53	14

(1) Bat eszedentzian.

2. ERANSKINA. JUSTIZIAREN ANTOLAMENDUA NAFARROAN.



TRANSFERENTZIEK UKITURIKO LANGILEAK

EPAITEGIAK

	Funtzionarioak	Behin behinekoak	Guztira
Auziteg. sendagileak	5	0	5
Justiziako ofizialak	100	1	101
Justiziako laguntzaileak	136	19	155
Agente judizialak	5	16	68
Guztira	293	36	329

BAKE EPAITEGIEAK

	Funtzionarioak	Behin behinekoak	Guztira
Ofizial-idazkaria	25	4	29
Justiziako ofizialak	2	1	3
Justiziako laguntzaileak	0	1	1
Agente judizialak	16	1	29
Guztira	43	19	62

Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urriaren 8an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Tafallako Udalari buruz, 2000ko ekitaldiakoa, egindako fiskalizazio txostena argitaratu dadila agintzea.

Iruñean, 2001eko urriaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (18. or.).
- II. Helburua (19. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (19. or.).
- IV. Iritzia (19. or.).
 - IV.1. 2000ko aurrekontu bateratuaren likidazioa (19. or.).
 - IV.2. 2000ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (20. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (20. or.).
 - IV.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa, 2000ko abenduaren 31n (20. or.).
 - IV.5. Kontuen Ganbararen gomendioen jarraipena (20. or.).
- V. Finantzen egoera-orriak (20. or.).
 - V.1. Egoera-orri bateratuak (20. or.).
- VI. Tafallako Udalari buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (24. or.).
 - VI.1. 2000ko aurrekontu bateratuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (24. or.).
 - VI.2. Finantza-egoera 2000ko abenduaren 31n (26. or.).
 - VI.3. Gorabeherak (28. or.).
 - VI.4. Administrazio kontratazioa (28. or.).
 - VI.5. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (30. or.).
 - VI.6. Hirigintza (31. or.).
 - VI.7. Euroa sartzeari buruzko gogoetak (31. or.).

VII. Erakunde Autonomoak eta Zerbitzu Deszentralizatuak (31. or.).

VII.1. Udalaren musika eskola (31. or.).

VII.2. Kultur Patronatua (31. or.).

VII.3. Udalaren kirol patronatua (32. or.).

VII.4. Eskualdearen kirol elkarteak (32. or.).

1. **eranskina.** Tafallako Udalaren organigrama (2000ko plantilla organikoaren arabera). (34. or.).

2. **eranskina.** Erabilitako adierazleen definizioa. (35. or.).

I. SARRERA

Tafallako Udala Nafarroako erdialdean dago, Iruñetik 40 kilometrora. 2000n, 10.350 biztanle zituen, gutxi gorabehera.

Bere jarduera burutzeko, honako erakunde autonomo hauek dauzka:

- Udalaren musika eskola
- Udaleko Kultur Patronatua
- Udalaren kirol patronatua
- Eskualdearen kirol elkarteak
- "Nuestra Señora de la Caridad" zaharrentzako egoitza eta ospitalea.

Bestalde, Mairagako Mankomunitatearen barruan ere badago, zeinak bere gain hartzen baititu bai uraren ziklo integrala eta bai hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua ere.

Udalak bere kontuetan sartzten ditu aipatu erakunde autonomoak, salbu "Nuestra Señora de la Caridad" zaharrentzako egoitza eta ospitalearenak; izan ere, azken horrek bereiz aurkezten ditu kontuak (egoerari buruzko balantzea, irabazien eta galeren kontua eta oroit-idazkia). Udalaren eta bere entitateen 2000ko zifrarik garrantzitsuenak honako taula honetan adierazten dira:

Entitatea	(pezetak, milioitan)		
	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko eskubideak	2000-12-31ko langileria
Udala	1.087	1.444	92
Musika Eskola	47	31	12
Kultur Patronatua	55	5	3
Kirol Patronatua	70	33	4
Eskualdearen kirol elkarteak	9	7	0
Guztira	1.268	1.520	111

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatu behar zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipaturiko legeek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioari nahiz hirigintza-kudeaketari buruzko arauak eta Nafarroako toki-enteei orokorki aplikatzekoak zaizkien gainontzeko arauak.

Kontabilitate eta aurrekontu gaietako araubide juridikoa Nafarroako Toki Administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko iraileko 270, 271 eta 272 Foru Dekretuetan ezartzen da. Halere, 1999an araubide hori aplikatzea borondatetzkoa zen, eta nahitaezko bilakatuko zen 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

- a) Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- b) 2000ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.
- d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko abenduaren 31ko finantza-egoera.
- e) Kontuen Ganbara honek 1999ko fiskalizazio txostenean eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganbarak Tafallako Udalaren (hemendik aurrera, Udala) eta haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek

ere badute kontabilitate orokorra, Udalean ezarritako kontabilitate-ereduari jarraituz.

Eginiko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, eta antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari buruzko hainbat puntu aztertzea.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta -arauei jarraituz burutu dugu lana. Era berean, lanaren plangintza-fasean agerian utzitako egoera eta arazoak kontuan harturik, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu.

Egin dugun lanaren mugei buruz, esan behar dugu ez ditugula aztertu Zaharrentzako Egoitza eta Ospitalearen 2000ko kontuak, halakorik eskuartzerik izan ez dugulako.

Txostenean daude Udalaren eta haren erakunde autonomoen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa lana 2001eko maiatzean egin dugu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

IV. IRITZIA

Burururiko fiskalizazioaren esparruan, Tafallako Udaleko eta haren erakunde autonomoetako 2000ko ekitaldiko egoera-orri finantzario bateratuak aztertu ditugu. Egoera-orri horiek Udalaren erantzukizunaren menpe egin dira; txosten honetako V. atalean jaso ditugu, laburturik.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

IV.1. 2000ko AURREKONTU BATERATUA-REN LIDIKAZIOA.

Erantsi dugun 2000ko aurrekontu bateratuaren likidazio egoerak behar bezala agertzen du, garrantzizkoak diren ikuspegi guztiei dagokienez, ekitaldiko jarduera eta 2000ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2000KO ABENDUAREN 31KO ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

2000ko abenduaren 31ko egoeraren balantzeak Udalaren ondare-egoera behar bezala agertzen du, inbentarioa salbu, hori 1993koa baita eta gaurkotzeke baitago.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Udalaren eta haren erakunde autonomoen jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkontasun-printzipioari jarraituz burutu da. Halere, kontratazioaren esparruan ikusi ahal izan da gai horri buruzko arau batzuk urratzen direla. Horren inguruko epigrafean zehaztu dira.

IV.4. 2000KO ABENDUAREN 31KO EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Tafallako Udalak 2000ko abenduaren 31n erakusten duen finantza egoeraren ezaugarriak hauek dira: 520 milioiko diruzaintzako gerakin positiboa, aurrezpen garbiko ehuneko bat –ehuneko 11–, 657 milioi pezetako epe luzerako zorra (aurreko ekitaldietan kontratatua), ehuneko 7ko zorpetze-maila eta ehuneko 18ko zorpetze-muga.

Laburtuz, 2000ko abenduaren 31ko finantza egoerak hobekuntza nabarmena izan du aurreko ekitaldiarekiko, eta biztanle tarte bereko Nafarroako gainerako udalek batez beste duten zorpetze maila antzekoa erakusten du.

IV.5. KONTUEN GANBARAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA.

Oro har, esan daiteke 1999ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izakerako gomendio nagusiak aintzat hartu direla.

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, adierazi behar dugu Tafallako Udalak, ikuspuntu administratibotik, ongi kudeatzen dituela bere aurrekontuak, baina beharrezkoak ditu ondokoak:

- Administrazio kontratazioaren gaineko araudiari dagokionez, arreta handiagoa eskaintzea espedienteen formalizazioaren inguruko alderdiei.

- Hirigintzaren kudeaketari dagokionez, jarduketak kontrolatzeko eta teknikoki jarraitzeko sistematik hobetzea.

- Erakunde autonomoei dagokienez, beharrezkoa da haien eginkizunak eta haien autonomia erreala argi eta garbi finkatzea.

- Zahar etxeari eskatzea urteko aurrekontu eta kontuen likidazioa epearen barrenean egin dezala, eta hura Udalaren kontu orokorrari atxikitzea eranskin gisa.

- Urteko oroit-idazkia prestatzea, ekitaldiaren amaieran Udalaren aurrekontuaren eta egoerari finantzarioen likidazioari eransteko.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Jarraian, Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzei buruzko egoera-orri bateratuak aurkezten ditugu. Txostena baliagarriagoa izan dadin, azalpena honako hauetara mugatuko dugu:

V.1. EGOERA-ORRI BATERATUAK

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko gastuen eta dirusarreraren aurrekontu bateratuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko gastu-aurrekontu bateratuaren likidazioa, sailkapen ekonomiko-funtzionalaren arabera.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantze bateratua.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakin bateratua.

Tafallako Udala eta haren erakunde autonomoak, 2000

Dirusarrerren aurrekontu bateratuaren betetzea

		(Pezetak, milakotan)		(Euroak, milakotan)		(Pezetak, milakotan)				
	Kap	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Kobratuta	Kobratzeke	Betetzearen %	Aitorturiko gutzitzaoren %
Zuzeneko zergak	1	250.769	0	250.769	283.324	1.703	48.037	235.287	113	19
Zeharkako zergak	2	60.000	0	60.000	118.680	713	52.552	66.128	198	8
Tasak eta bestelako dirusarrerak	3	139.472	661	140.133	160.215	963	132.139	28.076	114	11
Transferentzia arruntak	4	561.694	2.198	563.892	547.102	3.288	522.041	25.061	97	35
Ondare dirusarrerak	5	45.316	0	45.316	49.632	298	31.062	18.570	110	3
Inbertsio errealen besterentzea	6	360.734	0	360.734	94.470	568	89.555	4.915	26	6
Kapital transferentziak	7	705.598	16.250	721.848	266.822	1.604	131.805	135.017	38	18
Finantza-aktiboaren aldaketa	8	0	295.524	295.524	0	0	0	0	0	0
Finantza-pasiboaren aldaketa	9	0	34.389	34.389	0	0	0	0	0	0
Dirusarrerak, guztira		2.123.583	349.022	2.472.605	1.520.245	9.137	1.007.191	513.054	61	100

Gastuen aurrekontu bateratuaren betetzea

		(Pezetak, milakotan)		(Euroak, milakotan)		(Pezetak, milakotan)				
	Kap	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko obligazioak	Ordainduta	Ordain-tzeke	Betetzearen %	Aitorturiko gutzitzaoren %
Langileen ordainsariak	1	634.458	-15.817	618.641	603.511	3.627	596.765	6.746	98	48
Ondasun arrunt. eta zerb. eros.	2	305.205	17.980	323.185	316.029	1.899	253.558	62.471	98	25
Korrituak	3	33.284	-2.298	30.986	30.700	185	21.008	9.692	99	2
Transferentzia arruntak	4	33.311	2.994	36.305	35.930	216	21.255	14.675	99	3
Inbertsio errealak	6	1.001.371	346.163	1.347.534	226.877	1.364	150.921	75.956	17	18
Kapital transferentziak	7	64.609	0	64.609	4.329	26	81	4.248	7	0
Finantza-aktiboaren aldaketa	8	352	0	352	0	0	0	0	0	0
Finantza-pasiboaren aldaketa	9	50.993	0	50.993	50.842	306	50.842	0	100	4
Gastuak, guztira		2.123.583	349.022	2.472.605	1.268.218	7.622	1.094.430	173.788	51	100

Tafallako Udala eta haren erakunde autonomoak

2000ko aurrekontu bateratuaren betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren ikuspegitik (pezetak, milakotan)

Fun- cional	Descripción	Gastos personal	Biens. corr. y servicios	Gastos financie.	Transfer. corrientes	Inversiones reales	Transf. capital	Activos financieros	Pasivos financieros	Total oblig. reconocidas	% s/ total
45	Zor publikoa eta kirola	36.804	132.957	0	13.533	48.686	0	0	0	231.980	% 18
31	Segurtasun eta babes soziala	210.368	8.471	0	2.842	114	0	0	0	221.795	% 17
43	Hirigintza	56.604	32.004	0	656	120.835	4.329	0	0	214.428	% 17
22	Segurtasun eta babes zibila	95.371	7.599	0	462	0	0	0	0	103.432	% 8
12	Administrazio orokorra	41.128	38.482	0	1.447	6.347	0	0	0	87.404	% 7
44	Komunitate-ongizatea	8.662	32.002	0	0	46.712	0	0	0	87.376	% 7
01	Zor publikoa	0	0	30.700	0	0	0	0	50.842	81.542	% 6
42	Hezkuntza	46.550	16.911	0	4.458	3.683	0	0	0	71.602	% 6
32	Gizarte-sustapena	53.173	12.055	0	0	281	0	0	0	65.509	% 5
41	Osasuna	22.588	2.429	0	0	0	0	0	0	25.017	% 2
61	Araupetze ekonomikoa	21.065	1.303	0	0	0	0	0	0	22.368	% 2
62	Merkataritzako araupetzea	5.783	14.574	0	0	0	0	0	0	20.357	% 2
11	Gobernu-organoak	5.415	10.406	0	0	0	0	0	0	15.821	% 1
46	Beste. komunitate- eta gizarte-zerb.	0	209	0	8.499	0	0	0	0	8.708	% 1
72	Industria	0	2.623	0	4.033	0	0	0	0	6.656	% 1
53	Nekazaritza-azpiegiturak	0	4.004	0	0	219	0	0	0	4.223	% 0
	Guztira	603.511	316.029	30.700	35.930	226.877	4.329	0	50.842	1.268.218	% 100
		% 48	% 25	% 2	% 3	% 18	% 0	% 0	% 4	% 100	

Tafallako Udala

2000-12-31ko balantzea (pezetak, milakotan)

AKTIBOA	Kopurua, milakotan		PASIBOA	Kopurua, milakotan	
	pezetak	euroak		pezetak	euroak
IBILGETUA	960.761	5.774	ONDAREA	-58.965	-354
Ibilgegu materiala	917.803	5.516	Ondarea	990.507	5.953
Lurrak eta ondasun naturalak	133.869	805	Lagatako ondarea	-1.049.472	-6.307
Eraikinak	627.100	3.769			
Makineria, instalazioak eta tresneria	43.874	264	KAPITAL DIRULAGUNTZAK	630.269	3.788
Garraio-elementuak	9.146	55	Kapital dirulaguntzak	630.269	3.788
Altzariak	50.422	303			
Informazio-prozesuetarako ekipoa	29.392	177			
Instalazio konplexu espezializatuak	21.733	131			
Ondare historiko artistikoa	2.267	14			
Ibilgetu ez-materiala	42.748	257	EPE LUZEKO ZORRAK	656.633	3.946
Jabetza intelektualak	0	0	Jasotako maileguak	656.633	3.946
Bestelako ibilgetu ez-materiala	42.748	257			
Erabilera orokorreko ondasun eta inbertsioak	0	0	EPE LABURREKO ZORRAK	220.129	1.323
Lurrak eta ondasun naturalak	0	0	Aitorturiko betebeharrengatiko hartzek.	36.361	219
Herri ondasunetako inbertsioak	0	0	Agindutako ordainketengatiko hartzek.	139.268	837
Finantza-ibilgetua	210	1	Entitate publikoak	27.581	166
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	210	1	Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzek.	16.919	102
ZORDUNAK	623.494	3.747	APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	990	6
Aitorturiko eskubideengatiko zordunak	618.835	3.719	Aplikatzeko dauden dirusarrerak	822	5
Entitate publikoak	0	0	Aplikatzeko dauden bestelako kontusailak	168	1
Aurrekontuz kanpoko bestelako zordunak	4.659	28			
KONTU FINANTZARIOAK	154.005	926	EMAITZAK	289.204	1.738
Aplikatzeko dauden kontusailak	62	0	Ekitaldiko emaitzak	289.204	1.738
Kutxa	37	0			
Bankuak eta kreditu-erakundeak	153.906	926			
ORDENA-KONTUAK	258.398	1.553	ORDENA-KONTUAK	258.398	1.553
AKTIBOA, GUZTIRA	1.996.658	12.000	PASIBOA, GUZTIRA	1.996.658	12.000
GUZTIRA	2.255.056	13.553	GUZTIRA	2.255.056	13.553

Tafallako Udala

Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera, 2000-12-31n

	Zenbatekoak (pezetak, milakotan)	
1 (+) Ekitaldi-bukaeran kobratzeke dauden zordunak		586.463
Diru-sarrerren-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	513.054	
Diru-sarrerren-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	105.781	
Merkataritza eragiketetakoak	0	
Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	0	
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoak	4.659	
Ken kobratzen zailak diren saldoak	-37.031	
Ken behin betiko aplikatzeke dauden eta egin diren dirusar	0	
2 (-) Ekitaldi-bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak		-220.130
Gastu-aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	-173.788	
Gastu-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	-1.285	
Diru-sarrerren-aurrekontukoak	-557	
Merkataritza eragiketetakoak	0	
Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	0	
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoak	-44.500	
Ken behin betiko aplikatzeke dauden eta egin diren ordainketak	0	
3 (+) Ekitaldiaren bukaeran diruzaintzan diren funts likidoak		153.943
4 Finantziario atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintza-gerakina		162.400
5 Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (1 + 2 + 3 - 4)		357.876
Diruzaintza-gerakina, guztira		520.276

VI. TAFALLAKO UDALARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK**VI.1. 2000ko AURREKONTU BATERATUA-REN BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK**

Gastu eta dirusarrerren 2000ko aurrekontu bateratuak 2.123 milioiko hasierako kredituak agertzen ditu; hasierako aurreikuspenak horiek baziren ere, zenbait aurrekontu-aldaketa egin dira gastuetan eta dirusarreretan, batez ere aurreko ekitaldietako diruzaintza-gerakinarekin eta ban-kuarekin zorra hartuz finantzatu beharreko inbertsio errealen proiektu gehiago izan direlako.

Behin betiko aurreikuspenak edo aurrekontu bateratuak, beraz, 2.473 milioi pezeta egiten du dirusarreretan eta gastuetan. Halere, diruzaintza-ko gerakina 520 milioi pezetakoa da 2000ko abenduaren 31n.

Aitorturiko betebeharrak 1.268 milioikoak dira, eta horien betetze-maila ehuneko 51koa da. Hauxe da horren azalpena, funtsean: inbertsioen kapitulua gutxi bete da –ehuneko 17, hau da,

1.121 milioi pezeta gutxiago gastatu dira inbertsio-etan. Desbideraketa horren arrazoia jada adjudikatutako obren exekuzioaren atzerapena izan da.

Ehunekoak erabilita, honako hau da euren osaera:

Gastuak	Ehunekoa
Funtzionamendua	67
Inbertsioa	24
Finantza-zama	9
Guztira	% 100

Ikus daitekeenez, gastu-elementurik garrantzitsuena funtzionamendu-gastuek osatzen dutena da –langileria, ondasunak eta transferentzia arruntak–, Udalak gastatzen dituen 100 pezeta bakoitzeko 76 bereganatzen baititu; langileriarako, zehazki, 48 pezeta erabiltzen dira. 2000n, inbertsioak 1999an baino txikiagoak izan dira –70 milioi pezeta-, eta egindako obra garrantzitsuenak zerbitzuetako zuzkidurekin eta urbanizazioekin lotutakoak izan dira; gastuen ehuneko 18 egiten dute

horiek. Bestalde, finantza-zamak gastuen ehuneko 6 egiten du.

Langileriari dagokionez, 2000ko abenduaren 31n honako langile hauek ziharduten lanean Udaltxean eta haren erakunde autonomoetan:

Izaera	Zenbat
Funtzionarioak	47
Lan-kontratudun finkoak	36
Aldi baterako lan-kontratudunak	28
Guztira	111

Hona langile funtzionarioak: idazkaria, kontuhartzailea, kultur koordinatzailea, gizarte-graduatua, lau administrari-ofizial, lau administrari laguntzaile, zerbitzu terapeutikoko 3 langile, 12 obra eta zerbitzuetako enplegatu/etxezain eta udaltzaingolari atxikitako 20 langile.

Halaber, komeni da esatea guztietatik 5 langile finkok erakunde autonomoetan egiten dutela lan, nahiz eta formalki ez dauden haiei atxikiak. Haien lansariak Udalak berak ordaintzen ditu.

Alkatetzaren ordainsariak eta zinegotzien kalte-ordainek 9,5 milioi egiten dute guztira. Esan behar da Alkatetzako multzo horren lansari guztiei PFEZa eta haren atxikipenak aplikatzen zaizkiela.

Finantza-zamari dagokionez, jaitsi egin da, 1999koarekin alderatuz gero: 31 milioi pezeta gutxiago, hain zuzen ere. Izan ere, 1999an hiru maileguren amortizazioa bukatu da.

Ekitaldi honetan, maileguen eta kredituen korrituak sortzapen-irizpidearen arabera erregistratzen dira; sortutako eta ordaindu gabeko korrituek, 2000ko abenduaren 31n 8,9 milioi pezeta egiten dutela aitortu da.

Aitorturiko eskubideei dagokienez, 1.520 milioikoak dira, betetze-maila ehuneko 61koa izanik. Hona hori azaltzeko kontuan hartu beharreko datuak: aurreikusitako kapital transferentziak gutxi bete dira -722 milioi pezeta zeuden aurreikusita; gero, ordea, zenbateko erreala 267 milioi pezetakoa izan da, hau da, ehuneko 38 baizik ez da bete-, eta horrek lotura du inbertsio errealean gastuen kapituluak izan duen betetze maila baxuarekin ere.

Ehunekoaren araberrako osaerari dagokionez:

Dirusarrerak	Ehunekoak
Transferentzien bidezkoak	53
Tributuen bidezkoak	38
Ondare bidezkoak	9
Guztira	% 100

Alegia, 2000ko aurrekontu bateratuaren finantza-iturri nagusia transferentziek osaturikoa da -aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko, 53 pezeta finantza-iturri horretatik datoz-; tributu bidezko dirusarrerak, ordea, ehuneko 38 egiten dute.

Ondoko taulan jasotzen dira tributu-figura nagusiak eta horien zenbatekoa, 2000n aitorturikoa (pezetak, milioitan):

Tributu-figura	Zenbatekoa
Hirilur kontribuzioa	128
Eraikinen, instalazioen eta obren g. zerga	119
Lursailen plusbaliaren gaineko zerga	59
Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	47
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	39
Kirol instalazioak	29
Hirigintza lizentziak	24
Musika Eskolako tasak eta matrikulak	17
Iberdrolaren kanon	13
Irekitze-lizentziak	12
Landalur kontribuzioa	11
Hiltegia	6
Guztira	504

Nabarmena da hirilur kontribuzioaren eta Eraikinen, instalazioen eta obren gaineko zergaren garrantzi berezia, gainontzeko tributu-figurak alde handiz gainditzen baitituzte.

Txosten hau egin den egunean jaulkitzeko dago, barne antolaketako arazoengatik, jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren 2000ko errolda. 2000ko dirusarreraren aurrekontuaren likidazioan erregistratutako zenbatekoa Udalak 1999an kontzeptu horrengatik bildutako kopuruan egindako zenbatespen bat da: hain zuzen ere, 39 milioi pezeta dira.

Halaber, aurreko lerrokadan azaldutakoen antzeko arazoengatik, landalur eta hirilur kontribuzioari dagozkion errolden jaulkipena atzerapen nahikoarekin gertatu da; horrek berekin ekarri du 2000ko abenduaren 31n ekitaldiko zuzeneko zergengatik aitorturiko eskubideen ehuneko 83 kobratzeko egotea.

Udalak esparru-akordio bat izenpetu du Nafarroako Gobernuarekin lurzorua eta etxebizitzaren arloan; haren bidez, 212 milioi pezeta eta zenbateko horri dagokion BEZa jasoko du, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lurzorua besterentzearen truke.

2000ko aurrekontu bateratuaren betetze-egoearak 252 milioiko aurrekontu-superabita erakusten

du. Emaizta hori aitorturiko eskubideen eta bete-beharren arteko aldearen ondorioa da.

Aurrekontu-emaiztak 283 milioi pezetako superabit doitua erakusten du ekitaldian, behin inbertsio errealean gastuen eta haien finantzabideen arteko korrelazio-ezak (finantzabide horiek, gehienbat, erakundeetako dirulaguntzak eta urbanizazio kuotak dira) eta ekitaldian gastaturiko kredituei dagokien kopurua (diruzaintza gerakinarekin finantzuatuak) sorturiko finantziazio-desbideraketak zuzendu ondoren.

2000ko abenduaren 31n, ordaintzeke dauden kopuruak –gastuen erresultak– 220 milioikoak dira; horietatik, 1,3 milioi aurreko ekitaldietakoak dira. Kobratzeke dauden kopuruak –dirusarren erresultak– guztira 586 milioi egiten du, eta jatorria aurreko ekitaldietan daukatenak ehuneko 18 dira.

2000ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina positiboa da –520 milioi pezeta–. Kopuru hori honako honen emaitza da: ordaintzeke dauden 220 milioi pezetako zorrak, kobratzeke dauden 586 milioi pezetako dirusarrerak eta 154 milioi pezetako funts likido positiboak. Kobratzen zailtzat jotzen dira 1996an eta lehenago itxitako aurrekontuetan kobratzeke zeuden kopuruak, bai eta 1997, 1998 eta 1999ko ekitaldietan kobratzeke zegoenaren ehuneko 75, 50 eta 25, hurrenez hurren.

Ez dira jotzen kobratzen zailtzat –eta ez dira Udalak eginiko kalkuluaren oinarriaren atal bat ere– 1997ko urbanizazio kuotengatikoko saldoak –20 milioi pezeta egiten dute, guztira–; izan ere, horiek guztiak berreskuratzeko modukoak dira, bermaturik baitaude Jabetzaren Erregistroan dagozkien finken zama gisa inskribaturik egotearekin.

Udalari gomendatzen diogu arreta gehiago jar dezan kontribuzio eta zergetako ordainagiriak jaulki eta kobratzeko datak ezartzerakoan; horrek berekin ekarriko du ekitaldian zehar diruzaintzaren egoera hobetzea.

Azkenik, ondoko taulan erakusten da, ehunekoak erabiliz, 2000ko gastu-aurrekontuaren betetzea, eginkizun ezberdinen arabera sailkatua.

Deskribapena	Ehunekoa
Kultura eta kirola	18
Segurtasun eta babes soziala	17
Hirigintza	17
Segurtasun eta babes zibila	8
Administrazio orokorra	7

Komunitatearen ongizatea	7
Zor publikoa	6
Hezkuntza	6
Gizarte-sustapena	5
Osasuna	2
Araubide ekonomikoa	2
Merkataritzako araubidea	2
Gobernu-organoak	1
Bestelako komunitate eta gizarte zerbitzuak	1
Industria	1
Guztira	% 100

Horien azterketa egin ondoren, hauxe azpimarratuko dugu: udalaren 2000ko gastuaren ehuneko 52 kultura eta kirola, segurtasun eta babes soziala eta hirigintza arlokoa da. Egitura hori 1999koaren antzekoa da; izan ere, ekitaldi honetan gastuaren ehuneko 58 funtzio beretan kontzentratzen zen.

VI.2. FINANTZA-EGOERA 2000ko ABENDUAREN 31n.

2000an Udalak dauzkan ratio edo adierazleak honakoak dira, 1999ko datuekin konparatuta:

IA dierazleak	2000	1999
Aurrekontu-superabita/defizita (pezetak, milioitan)	252	364
Bizt. bakoitzeko dirusarrerak (pezetak)	146.884	162.659
Biztanle bakoitzeko gastuak (pezetak)	122.533	127.363
Bizt. bakoitzeko finantza-karga (pezetak)	7.878	10.934
Bizt. bakoitzeko tributu-dirusarrerak (pezetak)	54.321	49.223
Kobratzen betetzea (ehunekoa)	66	80
Ordainketen betetzea (ehunekoa)	86	89
Zorpetze-maila (ehunekoa)	7	11
Zorpetze-muga (ehunekoa)	18	15
Aurrezpen garbia (ehunekoa)	11	4
Langileria-indizea (ehunekoa)	48	45
Inbertsio-indizea (ehunekoa)	18	23
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (ehunekoa)	53	47

Eginiko azterketatik, hauxe azpimarratzen dugu:

2000ko ekitaldian 252 milioikoa da aurrekontu-superabita; 1999an, berriz, superabita 364 milioikoa izan zen. Gutxitze hori dirusarrerak gastuak baino gehiago jaitsi izanaren ondorioa da (dirusarreraren ehuneko 9,3ko jaitziera eta gastuen ehuneko 3,3ko jaitziera). Betiere, kontuan hartu beharko litzateke 1999an finantziario desbideraketa positibo handiak izan direla, eta horiek kontuan hartuta, superabit doitua 21 milioi pezetakoa izanen litzateke (2000n 283 milioi pezetakoa izan zen).

- Biztanle bakoitzeko gastuak ehuneko 4 jaitsi dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Aitorturiko gastuak 1999an baino 44 milioi txikiagoak dira 2000n, eta gastuen aurrekontuko likidazioan murrizketa izan duen kapitulu bakarrak inbertsio errealena, kapital transferentzia eta finantza pasiboenak dira; 115 milioi pezeta gutxiagokoak dira; funtsean, ekitaldi honetan inbertsio jarduera txikiagoa izan da eta zorpetzea ere murriztu da.

- Tributuen bidezko dirusarrerak, biztanle bakoitzeko, ehuneko 9 igo dira, batez ere ondoko arrazoiengatik: instalazio, eraikuntza eta obren gaineko zergarengatik eta urbanizazio tasengatikoa bilketa handiagoa izan da -64 milioi pezeta-, aurrekontuetako diru kopurua handiagoa izan delako ekitaldian tramitaturiko obrak baino.

- Langileriako gastuak % 3 igo dira eta inbertsioen indizea, ordea, jaitsi egin da, 1999ko gastu guztien % 23 izatetik 2000ko ekitaldiko gastuen ehuneko 18 izatera pasatu baita.

- Biztanle bakoitzeko finantza-zamak ehuneko 28 egin du behera, 1999ko abenduaren 31n indarrean zeuden hiru maileguren epemuga iragan delako eta ez delako banku-finantzaketa berriz ere kontratatu. Aurrezki garbiak hiru puntu egin du gora eta zorpetzeak, berriz, lau puntu behera.

- Kobrantzak betetzeko ratioa ere gutxitu da, 1999an ehuneko 80 izatetik 2000n ehuneko 66 izatera iragan da, batez ere landalur eta hirilur kontribuzioaren erroldaren jaulkipena atzeratu delako eta jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagozkion eskubide aitortuen erregistroa estima-

zio batean oinarriturik egin delako. Txosten hau egiteko garaian, ez da behar den errolda igorri.

- Dirulaguntzen mendekotasuna, oro har toki entitate guztietan gertatzen den moduan, oraindik ere altua da eta 1999koa baino handiagoa da. Dirusarreraren ehuneko 53 inguru dirulaguntzen bitartez jasotzen da; transferentzia arrunten bidez, berriz, dirusarreraren ehuneko 35 eskuratzen da; gainerakoa, ehuneko 18, kapital transferentzien bitartez eskuratzen da.

2000ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokionez, hona azalpena (pezetak, milioitan):

Adierazleak	2000
Diruzaintza-gerakina	520
Epe luzeko zorra	657

Hau da, Udalak eta erakunde autonomoek 2000ko ekitaldiaren bukaeran zuten finantza-egoerak epe luzeko zorpetze handia erakusten du, nahiz eta aurreko ekitaldiarekin alderatuz hobera egin. Horrek esan nahi du hurrengo ekitaldietan baliabide ugari erabili beharko direla sortzen diren finantza-zamei aurre egiteko.

Azkenik, ondoko taulan, Tafallari buruzko 2000ko informazioa eta Nafarroan biztanle-tarte berean dauden beste udal batzuetako 1998rako batez bestekoa ⁽¹⁾ alderatuta agertzen dira, zenbait ratori dagokionez:

Ratioak	10.000-50.000 bizt. bitarteko udalak, 1998	Tafalla 2000
Gastu arrunta/biztanle (pezetatan)	116.110	92.316
Dirusarrera arrunta /bizt. (pezetatan)	122.833	107.181
Zerga dirusarrera/biztanle (pezetatan)	46.733	54.321
Zorpetze-muga	17%	18%
Zorpetze-maila	7%	7%
Zorpetze-ahalmena	10%	11%

(1) Datu hauek Toki Administrazioako Departamentuak emandakoak dira, eta ganbera honek Toki Sektore Publikoari buruzko 1998ko txostenean eman zituen argitara.

Alderaketa horrek dituen mugak kontuan izanik ⁽²⁾, ondokoa adierazi behar dugu, garrantzitsuena delakoan: Tafallako per capita dirusarrera arruntak eta biztanleko gastu arrunta txikiagoak direla biztanle-tarte bereko herrienak baino –tributu dirusarrerak alde batera utzita-. Halaber, zorpetze ahalmen txikiagoa du.

VI.3. GORABEHERAK

Udalak emandako informazioaren arabera, honako hauek dira ebazteke dauden errekurtsio nagusiak:

- Lurralde kontribuzioari, trafiko isunei, lurren balioaren gaineko zergari eta hirigintza arau-hausteei buruz igorritako likidazioen aurkako gora jotzeko errekurtsioak.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Udalak 1994ko abenduaren 1ean Langileen Estatu-tuak ezarritako ordainsarien sistema erregularizatzearen inguruan hartu zuen erabakiaren kontrakoa. 1997ko abenduaren 23an sailak autoa eman zuen; horren bidez, Konstituzio Auzitegiari azaroaren 2ko 17/94 Legearen arau-edukiari buruzko konstituziokontrakotasun-arazoa helaraztea erabaki zuen, baina ez da izan oraingoz horri buruzko ebazpenik.

- Kirol klubarentzako produktu kimikoen hornidura adjudikatzeko ebazpenaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa. Epaia eman zain dago. 0,9 milioi pezeta aurreikusi dira horretarako.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, ordainsariengatik kopuru bat eskatzeko Udalak hartutako erabakiaren aurkako. Epaia eman zain dago. 1,5 milioi pezeta aurreikusi dira horretarako.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, langile batek aurkeztutakoa, zerbitzu berezietako egoeran dagoen funtzionario gisa gradua eta antzintasuna jasotzeko eskubidea dela eta. 7,5 milioi pezeta inguru aurreikusi dira horretarako.

Ondorio ekonomikoak zenbatets daitezkeen gaitan baizik ez dugu adierazi zein den eragin ekonomikoa. Gainerakoentzat, ezinezko da oraindik eragina zehaztea.

2000ko abenduaren 31n, ikuskatzeko moduan daude preskribitu ez duten ekitaldi guztiak, Udalak ordaindu beharreko zergen kasuan.

VI.4. ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

Atal hau banatu egin da, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko hainbat puntutan, eta, bestetik, inbertsioetan.

VI.4.1. Hornidurak erostea eta zerbitzuak ematea

Udalak 2000n kontrataturiko bi zerbitzuei buruz egindako lanetik, ondokoa azpimarratu nahi dugu:

A) Zezen ikuskizunak ospatzeko zerbitzua kontratatzea (6,5 milioi pezeta).

Kontuen Ganbarak honelako kontratazioen ezaugarri bereziak ezagutzen ditu. Dena den, legearen ikuspegi eta ikuspegi formal hertsitik, honakoak izan dira espediente berrikusterakoan antzemandako akatsak:

a) Espediente hau tramitatzeko prozedura negoziatua, prentsan iragarrita, erabili da; hori ez da zuzena, lizitazio prezioa 5 milioi pezeta baino altuagoa delako.

b) Ez da berariaz adierazten, klausula administrazioen pleguan, prezioek BEZa daramaten.

c) Espedientean ez da txosten juridikoa ageri.

d) Proposamenak aurkezteko ezarritako muga 14 egun baino laburragoa izan da, lizitazioa NAOn argitaratu zen egunetik hasita: hori ez da zuzena, prozedura negoziatua delako.

e) Behin betiko fidantzaren formalizazioa ez da kontratua formalizatu aurretik egiten.

Zerbitzu honen kontratazioa, hasiera batez, 2000 eta 2002 bitartekoa, biak barne, izan da. 2001eko otsailaren 20an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen enpresa adjudikazio-hartzaileak eskatutako kontratu-etetea onartzea; beraz, 2001eko ekitaldian, zerbitzu hori kontratatzeko espedienteari ekin behar zaio berriro.

B) Udal eraikinak garbitzeko zerbitzuaren kontratazioa (5,8 eta 7,4 milioi pezeta).

Oro har, ateratzen dugun ondorioa da zerbitzuen hornidura eta ematea kontratatzeko prozedura egokia dela, eta aldekoena den eskaintzaren alde adjudikatzen dela. Halere, ondoko iruzkinak egin nahi ditugu:

a) Espedienteen prestaketa eta tramitazioa arduradun bakarraren eskuetan zentralizatu behar da.

(2) Gogoraten dugu, bereziki, zerbitzu publikoak emateko modua eta kalitatea.

b) Presako tramitazioa gehiegi erabiltzen da, gauzak presaz zergatik tramitatzen diren berariaz azaldu gabe.

Hona gure gomendioak:

- *Presako kontratazioa ez erabiltzea, ahal den neurrian, behintzat.*
- *Kontratazioari buruzko arauak estu betetzea.*

VI.4.2. Inbertsioak

Ondoko kontratazio espedienteak aztertu ditugu, haiek urte anitzetako aurrekontuetan duten egozketa alde batera utzita. Epigrafe honetan sariturik daude bai zentzu hertsiko obra kontratuen azterketa bai horien proiektuaren edo zuzendaritza teknikoaren azterketa:

(pezetak, milioitan)

Espedientea	Adjudikazio prozedura	Adjudikazioaren Gastua,	
		kopurua	2000
Gaztediaren Etxea zaharbertitzeko obrak	Negoziatua, iragarrita, presako tramitazioa	17	18
Etxe Merkeetako espaloiei zoladura emateko obrak	Negoziatua, iragarrita, tramitazio arrunta	29	23
AR-4 unitateko lurzatiak berrantolatu, urbanizatu eta zuzentzeko proiektua	Irekia, tramitazio arrunta	28	0

Halaber, ekitaldian eginiko inbertsio nagusiei eusteko dokumentazioa aztertu dugu, erregistraturiko gastuaren ehuneko 58 egin arte.

1999ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostean berrikusitako inbertsio-espedienteen jarraipenari dagokionez, adierazi behar dugu indarreko hiri-antolamendu planeko UAO-2 unitatearen urbanizazio lana atzerapen handiarekin ari dela; atzerapen horren arrazoia da urbanizazio obra horiek eta leku horretako partikularren beste obra batzuk batera egiten ari direla. 2000ko martxoaren 28an adjudikatu zen obra, 343 milioi pezetatik; egiteko epea 8 hilabetekoa zen. Txosten hau bukatzeko garaian, adjudikazio-prezioaren ehuneko 27 baizik ez da egin.

Ondotik, ondorio eta iruzkin aipagarrienak azalduko ditugu:

- Azterturiko kontratazio espediente guztietan aurkitu ditugun akatsak:

a) Kontratazio espedienteetan ez da espresuki adierazten presako tramitazioaren arrazoiak zein diren.

b) Espedienteetan, ez da beti ageri kontu-hartzailearen txostenik ez eta kreditua egoteari buruzko ziurtagiririk ere.

- Obra zehatzak. Aztertutako espedienteetako alderdi aipagarrienak azpimarratu ditugu atal honetan:

a) Gaztediaren Etxea zaharbertitzeko obrak. Nabarmentzekoak:

1. Kontu-hartzaileak ez du gastua fiskalizatu.

2. Lizitazio prezioa hasiera batean kontusailean zegoen dirua baino handiagoa da. Hala ere, espedienteen kontu-hartzailearen txostena dago, non adierazten baitu obra adjudikatzen prezioa hasierako kreditua baino handiagoa izatekotan behar den aurrekontu-aldaketa eginen dela.

3. Espedientea presako bidetik tramitatu da; horren arrazoia da agian dirulaguntza gal litekeela obraren adjudikazioa geroratzekotan.

4. Proposamenak aurkezteko 14 egun baino gutxiago eman dira, lizitazioa NAOn argitaratu zenetik kontaktzen hasita; hori ez da inolaz ere zuzena, prozedura negoziatua delako.

5. Espedienteetan ez da jaso adjudikazioa NAOn argitaratu dela.

6. Behin betiko fidantza kontratua egin ondoren jarri da.

7. Obrak atzerapenez bukatu dira. Hala eta guztiz ere, hori justifikatzeko txosten tekniko bat badago; beraz, kontratistek ez zaie zigorrik ordainarazi.

b) Hirigintza Antolamenduko Plan Orokor indarduneko AR-4 unitateko lurzatiak berrantolatu, urbanizatu eta zuzentzeko proiektua. Hona azpimarratzekoak:

1. Kontu-hartzaileak ez du gastua fiskalizatu.

2. Kontratua legez ezarritako epeaz kanpo egin da.

c) Etxe Merkeetako espaloiei zoladura emateko obrak. Hona azpimarratzekoak:

1. Obra hau Mairagako Mankomunitateak sareak berrizatzeko egin dituen lanen osagarria da. Obra kontratatzekeo prozedura negoziatua, iragarri gabekoa, erabili da, obra osagarri bat dela-koan.

2. Behin betiko fidantza kontratua egin ondoren jarri da.

3. Obra kontratuan ezarritako epeaz kanpo bukatu da, baina kontratistari ez zaio inongo zigorrik ezarri.

Hori guztia dela eta, berraztertu dugun laginari buruzko laburpen orokor gisa, Ganbera honek ondokoak gomendatzen dizkio Udalari:

- *Udalak bete behar du administrazio-kontratazioari buruzko araudia, bereziki gai hauei dagokienez: kontratazio-espeditenteak formalizatzea eta udalaren aholkularitza juridikoak eta kontu-hartzailetak hautapen prozesu guztietan esku hartzea.*

- *Obra espeditenteetarako presako tramitazioa ez erabiltzea, ahal den neurrian, behintzat.*

- *Kontratuak ezarritako epeetan bete daitezen exijitzea.*

VI.5. BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbera honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate-eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.5.1. Antolamendu orokorra eta aurrekontua.

Komenigarria izanen litzateke ondokoei buruzko neurriak hartzea:

- *Udalaren egitura aztertzea, udalaren kudeaketa-beharretarako egokia den egiazatzeko. Bide horretan, kudeaketa-arloetan oinarrituriko antolamendu-egitura bat egitea azter daiteke.*

- *Barne Araubideari buruzko Erregelamendu bat egitea. Hartan, Udalaren organo exekutiboaren eskumenak eta erakunde autonomoekiko harremanak finkatu eta berezi beharko dira.*

- *Idatziz ezartzea kudeaketari buruzko oinarriko prozedurak, eta horiek betetzeko faseen arduradunak identifikatu eta esleitzea.*

- *Aurrekontua lege ezarritako epearen barrenean, hau da, kasuko ekitaldia hasi aurretik, onartzea.*

- *Kontuen Batzorde Bereziak lege ezarritako epearen barrenean onartzea aurrekontuaren likidazioa, bai eta ekitaldiko kontu orokorra, Udalaren zein bere erakunde autonomoenak, zahar-etxearena barne dela.*

- *Urteko oroit-idazkia egitea, Udalaren finantza-egoeraren orri eta aurrekontuaren likidazioari erantzeko.*

VI.5.2. Inbentarioa-Ibilgetua

- *Udal ondasunak –bai jabetza publikokoak, bai ondarekoak eta herri-ondasunak ere– eskuratzeko eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *1993ko udal inbentarioa gaurkotu eta onestea.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Altak eta bajak kontabilizatzeko eta ibilgetuaren dokumentazioa artxibatzekeo prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta depuratzea, behar bezala azal ditzen Udalaren ondasunak.*

VI.5.3. Langileria

- *Plantilla organikoa lege ezarritako epearen barrenean, hau da, kasuko ekitaldia hasi baino lehen, onartzea.*

- *PFEZaren atxikipena zenbaterakoan lan sari aldagarriak ere kontuan hartzea.*

VI.5.4. Zordunak eta hartzekodunak

- *Hirugarrenen kobratzeko eta ordaintzeko saldoen kontabilitate-erregistro gaurkotuak izatea, epemugen arabera kobratu eta ordaindu beharkeo zenbaterkoei buruzko informazio nahikoa izateko.*

VI.5.5. Tributuen bidezko dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak

- *Erroldea erabilgarri edukitzea jarduera ekonomikoaren gaineko zerga eta landalurrearen gaineko kontribuzioa likidatzeko, zerga ordainarazi eta hura sortzen den ekitaldian kobratzeko behar den epean.*

VI.5.6. Zordunak-Agentzia Exekutiboa

- *Ezarritako epea betetzen denean, agente exekutiboarekin dagoen kontratua berritza.*

VI.6. HIRIGINTZA

Tafallak 1986tik du Hiri Antolamendurako Plan Orokor bat. 1993an, Plan hori aztertzeari ekin zitzaion, eta 1994an behin betikoz onetsi zen haren aldaketa. Hurrengo ekitaldietan zenbait aldaketa puntual egin zaizkio Planari.

Udalak ez du egin orain arte HAPOaren azterlan ekonomikofinantzarioaren berariazko jarraipenik, eta, guk dakigula, ez du aldizkako azterlanik egin obrak egiteko aurreikuspenak noraino bete diren, haien kostu ekonomikoa edo finantzaketa jakiteko.

HAPOan ezarritakoaren arabera, hirigintza unitate bakoitza plan partzial edo/eta xehetasun azterlanen bidez garatzen da. Planeamenduaren sustapena Udalaren beraren esku eta ekimen pribatuaren esku dago, eta planeamenduaren exekuzioa hirigintzako plan, berrikuspen, errekurtsio, aldaketa eta hitzarmenen bidez arautzen da.

Planeamenduko espedienteen euskarri izaten dira Udaleko zerbitzu teknikoek prestatzen ohi dituzten hirigintzako txosten teknikoak.

VI.7. EUROA SARTZEARI BURUZKO GOGO-ETAK.

Udalak ongi ezagutzen ditu euroa sartzeak udal jarduerarako izan ditzakeen arriskuak.

Alderdi hau aplikazio informatikoen hornitzaileekin batera –ANIMSA– aztertzen ari da; beraz, Udalak uste du arrisku horretatik ez dela etorriko udal jardueran nabarmen eraginen lukeen egoerarik.

VII. ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA ZERBITZU DESZENTRALIZATUAK.

Patronatuen kudeaketa Udalak berak egiten du; patronatuek ez dute jarduten indarreko legeek ematen dieten nortasun berezkoarekin.

Ondotik adierazi ditugun datuek ez dute islatzen erakunde autonomoek eta zerbitzu deszentralizatuek eginiko jarduera guztia; izan ere, udalak bere gain hartzen du langileria-gastuen, inbertsio-gastuen eta funtzionamenduko zenbait gasturen zati bat.

Hauxe da gure gomendioa: erakunde autonomoen egungo egoera aztertu eta argitzea, behar duten autonomiaz janzteko baliabideetarako eta funtzionamendurako, arauetan eta estatutuetan jasota dagoen bezala; bestela ere, haiek desegin eta haien jarduera udal zerbitzuek hartzea.

VII.1. UDALAREN MUSIKA ESKOLA

“Udalaren musika eskola” patronatu edo erakunde autonomoak 47 milioi pezetako aitorturiko obligazioak ditu 2000n; eskubideek, berriz, 31 milioi pezeta egiten dute. Ondoko tauletan azaldu ditugu zenbateko horiek, jatorri ekonomikoaren arabera sailkatuta.

(pezetak, milioitan)

Dirusarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Matrikulak eta jaso-agiriak	17	56
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	14	44
Guztira	31	% 100

(pezetak, milioitan)

Gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Langileria	42	90
Funtzionamendua	3	7
Inbertsioak (tresnak)	2	3
Guztira	47	% 100

Ikus daitekeenez, gastuaren egitura batez ere langileen gastuetan oinarritzen da: logikoa da hori, ikusita Eskolak nolako zerbitzua ematen duen. Dirusarrerei dagokienez, berriz, zentroak sorturiko diru-baliabideek aurrekontuaren ehuneko 56 egiten dute; beharrezkoa da, beraz, kanpoko finantziarioa –dirulaguntzen bidez–, ehuneko 44rako.

Langileei dagokienez, 2000. urtearen bukarean, Eskolak honako langile hauek zituen:

Langileak	Finkoak Aldi baterako	Guztira
Irakasleak	8	4
		12

Horietatik bostek lanaldi partzialeko kontratua dute. Administrazio eta kontabilitate lanak Udalak berak egiten ditu. Irakasle ez direnen multzoko langilea, berriz, etxezain bat da.

VII.2. KULTUR PATRONATUA

Kultur Patronatuak 55 milioi pezetako aitorturiko obligazioak ditu 2000n; aitorturiko eskubideek, berriz, 5 milioi egiten dute. Ondoko tauletan zenbateko horiek jatorri ekonomikoaren arabera sailkatuta azaldu ditugu:

(pezetak, milioitan)

Dirusarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Tasak	2	33
Dirulaguntzak	3	67
Guztira	5	% 100

pezetak, milioitan)

Gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Langileria	13	24
Funtzionamendua	28	51
Transferentziak	2	4
Inbertsioak	12	21
Guztira	55	% 100

Gastu nagusiak funtzionamenduari dagozkio; antolatutako ikuskizunak eta jaiak eta langileria gastuak sartzen dira haietan. Jasotako dirusarrek gastuen ehuneko 9 betetzen dute, eta tasa eta dirulaguntzetatik datoz.

VII.3. UDALAREN KIROL PATRONATUA

Udalaren kirol patronatuak 70 milioi pezetako aitorturiko obligazioak ditu 2000n; eskubideek, berriz, 33 milioi pezeta egiten dute. Ondoko tauletan zenbateko horiek agertu ditugu, jatorri ekonomikoaren arabera sailkatuz:

(pezetak, milioitan)

Dirusarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Kuotak eta abonauk	28	86
Bestelako dirusarrerak	2	6
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak	3	8
Guztira	33	% 100

(pezetak, milioitan)

Gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Langileria	19	26
Funtzionamendua	37	54
Transferentziak	5	8
Inbersioak	9	12
Guztira	70	% 100

Ikus daitekeenez, gastuaren egitura zerbitzuen funtzionamenduko gastuetan eta langileria gastuetan oinarritzen da, batez ere. Dirusarrei dagokienez, berriz, zentroak sorturiko baliabideek ehuneko 86 egiten dute; kanpoko finantziazioa, berriz, Nafarroako Gobernuak emandakoa da, eta ehuneko 8 egiten du.

VII.4. ESKUALDEAREN KIROL ELKARTEA

Eskualdearen kirol elkarteak 9 milioi pezetako aitorturiko obligazioak ditu 2000n; eskubideek, berriz, 8 milioi pezeta egiten dute. Ondoko tauletan zenbateko horiek azaldu ditugu, jatorri ekonomikoaren arabera sailkatuz.

(pezetak, milioitan)

Dirusarrerak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Tasak	2	24
Dirulaguntzak	6	76
Guztira	8	100%

(pezetak, milioitan)

Gastuak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Langileria	2	25
Funtzionamendua	7	75
Guztira	9	100%

Gastuak udalak behin-behineko kontratatutako pertsona bati eta kirol jarduerak, bidaiek eta abarrek sorturikoei dagozkie. Dirulaguntzen bidezko dirusarrerak Nafarroako Gobernutik eta eskualdeko udaletatik heldu dira.

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko urriaren 1ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

2 ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA

- Diru-sarrereren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--